

11

**Bi puntuen
aurea eta atzea**
Iñigo Roque

19

**Interneteko
segurtasuna eta
datuak zifratzea**
Javier Ortega
(Malkavian)

21

**Azalpen- eta
iritzi-testuetako
izenburuak**
Asier Irizar

Kirmen Uribe: “Une ezin egokiagoan harrapatu nau sariak, bete-betean”




Albiste iturri izan da berrikitan Kirmen Uribe. Espainiako Narratibako Sari Nazionala irabazi du *Bilbao-New York-Bilbao* nobelagatik, eta 1988an Bernardo Atxagak eta 2001ean Unai Elorriagak egindako bidea berritu du. Hamar urte dira Mikel Urdangarin kantariarekin batera *Bar Puerto* ikuskari ederra ondu zuenetik eta gutxiago, berriz, *Bitartean heldu eskutik* poema liburu fina argitaratu zuenetik. Handik hona, helburu berak zuzendu ditu Kirmen Uriberen buru-bihotzak: literatura ona egin nahia.

6. or.

Eztabaida: Krisialditik ateratzeko zergak igo ala jaitsi?

Krisiak ekonomia hankaz gora jarri du, eta gobernuek egoera latzari aurre egiteko neurriak eta laguntzak ematen saiatu dira. Hori egin ahala, euren aurrekontuetan desoreka gero eta handiagoak sortzen dira. Horrek, nola ez, herritarren patriketan izango du eraginik. Azken finean, krisialditik irteteko bi errezeta klasiko daude: zergak igo, laguntzak eta neurri bereziak sustatzeko finantzia-zioa lortzeko; edo zergak jaitsi, kontsumoa piztu eta errekupeazioa bultzatzeko, baina premia larriak dituztenak albo batera utzita. Ba al dago bitarteko egokirik?

13. or.



Erreportajea: Berotze globala, Euskal Herria hotz?

Milioika urtetan gure planetan etengabeko klima aldaketak izan dira: glaziazioak, urtzaroak, itsasoak sortu eta desagertu... Azken hamarkadetan bizitzen ari garen aldaketak, baina, bi ezaugarri nabarmen ditu: gizakiaren eraginez sortua dela eta abiadura oso handian ari dela gertatzen. Adituek uste dutenez, negutegi efektua dela eta, planetaren tenperaturak datozen urteetan inoiz ez bezala egingo du gora. Euskal Herrira, hala ere, kontrakoa ekar omen lezake horrek: tenperatura hotzagoa. Aldaketa horiek ingurumenean eta gizaki zein animalien osasunean aurreikusi ezin den eragina izango dute. Berotzea gelditzeko garaiz al gabiltza?

15. or.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

EGUNON!
ZER NAHI
DUZU?

HAU BA!
LANA BALEGO

ZER ROCKA
JOTZEN
DUZU?

EUSKAL
ROCK

ISAI!
TIJUANAKO
ROCKA.

ALAJAINA!

Ni
BOSGALEN,
ZU
SEIGALEN
ZALA.

HARA HEMEN
EUSKARA
GLOBALIZATUA!!

BERGÉS



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Jon Arretxe, Eleder Aurtenetxe, Urtzi Barrenetxea, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Irene Fernández, Eneritz Garro, Nekane Goikoetxea, Asier Irizar, Rodrigo López, Luma, Begoña Minaur, Ramon Olasagasti, Maite Oronoz, Javier Ortega, Nerea Pikabea, Iñigo Roque, Amaia Ugartemendia, Izaskun Zuntzunegi.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziaik.

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. www.ivap.euskadi.net

PERTSONAIA

Anne Igartiburu, telebistako aurkezlea:

“Ez duzu ahaztu behar muntaia horren engranaje bat besterik ez zarela”



Madrilerako bidea Elorrioko mendietara igotzea baino malkartsuagoa izan da, baina tontorrean dago orain, bertako ikusmiraz gozaten. Gailurrean, ordea, ez da beti giro izaten, eta horregatik, ekaitz sasoirako ondo babestuta dago Anne. Berrogei urte bete berriak, bere edertasuna eta hitz jario atsegina etxeko sukalderaino sartzen dira egunero TVE 1en aurkezten duen *Corazón de saioaren* bitartez. Antzerkia eta zinea ere egin ditu. Azkena Pausoka ekoiztetxearekin egindakoa: *Zorion perfektua* filmeko protagonista izan da.

Noiz eta nolatan hasi zinen telebistan lanean?

Ikerlan zentro teknologikoan ikerketa aplikatuen arloan lanean nabilela, Arrasate Telebistan lan egiteko aukera sortu zitzaidan. Gero, ETBn ibili nintzen hainbat saiotan, *Boulevard* eta *Elkanotarrak* saioetan, besteak beste. Arte dramatikoak ikasten hasi nintzen, eta hortik Telecinco-n lana atera zitzaidan.

Orduan erabaki zenuen Madrilerara joatea?

Ez zen bat-bateko gauza izan. TVE 2 katean kultur programa bat aurkeztu nuen, baina ETB erabat utzi gabe. Halako batean, 1997an *Corazón de saioan* lan egiteko aukera sortu zitzaidan, eta dagoeneko hamahiru urte daromatzat. Tartean, beste zenbait programa eta lan ere egin ditut; antzerkian ibili naiz, baina beti ere *Corazón de saioa* utzi gabe. Eta batez ere, lan asko egiten eta ikasten jarraitzen dut.

Duela hamabost urte esan balizute horretan aritu behar zenuela, sinetsiko zenuen?

Gauzak etorri bezala hartu ditut. Horren aurrean jarrera lasaia eduki izan dut beti. Gauzak ez dira egun batetik bestera lortzen.

Sarritan entzun izan dugu Madrilen aurrea egitea zaila dela, alde handia dagoela ETBren eta estatuko telebisten artean...

Presioa desberdina da eta, beharbada, giroa ere bai. Entzuleen presioa gehiago antzematen da estatu mailako telebista batean. Baina gainerakoan bizimodu normala egiten dut Madrilen. Ez dut eguna *glamour* artean pasatzen, ez naiz egunero ospetsuekin afaltzera joaten.

Nola lortzen duzu biak uztartzea?

Ez da erraza *glamour* giro horren eta bizimodu normalaren arteko orekari eustea. Nire lagunak ez dira mundu horretakoak. Gainera, burua hotz eduki behar da; ez duzu ahaztu behar muntaia horren engranaje bat besterik ez zarela, etorri den moduan joan egingo dena.

Ez duzu uste betiko denik orduan?

Ez, ez. Ondo baldin badoa, aprobetxatuko dugu. Nik orain nire familiaren eta nire alabaren etorkizuna ziurtatu nahi ditut. Sakrifizioa handia da. Tentsio handia da bizimodu normala egiteko. Urte asko dira, norbera nekatu egiten da eta nik ere nire adina daukat.

Ze ezaugarri behar da arrakasta izateko?

Lan horretarako edota bizitzan sortzen zaizkizun edozein egoerei aurre egiteko, norberak etxean txikitatik jasotzen dituen balioak eta egunero ikasten diren gauza txikiak dira oinarria. Gero, bizitzak ere asko erakusten dizu. Noski, espabilatua izateak eta jende onez inguratuta egoteak ere asko laguntzen du.

Sarritan aipatu izan da pertsona ospetsuen intimitatea urratu egiten dela bihotzeko gaiak lantzen dituzten saioetan. Non dago muga?

Egunero egiten diogu galdera hori geure buruari. Askok hoztasunez jokutzen dugula leporatzen digute. Guk hasieratik bide bat daramagu eta uste dut lortu dugula jendea errespetatzea. Gero, batzuek bere bizitzarekin zirkua egiten dute, eta beste batzuetan guk egiten dugu. Baina oreka horri eusten saiatzen gara.

Ze proiektu dituzu eskuartean?

Orain pixka bat gelditu egin nahiko nuke, pentsatu, neure denbora hartu. Beste haur bat eduki nahiko nuke, aitarekin eta lagunekin gehiago egon, Elorrioko mendietan ibili, etab. Horrez gain, enpresa kudeaketa ikasi nuen, hainbat hizkuntza hitz egiten dut, eta harremanak ditut gobernuz kanpoko erakundeekin. Hori guztia baliatu nahiko nuke Erantzukizun Sozial korporatiboaren arloan aritzeko, komunikazioa, ingurumena eta arlo soziala uztartuko dituen lanen batean.

Nerea Pikabea
Kazetaria

Ezizenak (2)

“Neri deritzat Galtzaundi, apellidua det Goñi, Aldasoro izen goitiya, deitzen dirate neroni”.

Izengoitia, norbait izendatzeko izen-deituren ordez erabiltzen den izena. Jaio bezain laster jartzen digute izena. Izenak besteengandik bereizten gaitu: Koldo ez da Joseba, eta Miriam ez da ez Oldasne ez Koldo ezta Joseba ere.

Umea pixkanaka-pixkanaka hazi ahala, maite-maite egiten zaionean, deitzen zaionean edo hitz egiten diogunean, izena bera nahikoa samurra ez-edo eta, izenaren ordez, izen-ordeko beste hitz batzuk esaten dizkiogu: (gure) Pottotto, (nire) Xagutxu, Txindurritxu halakoa... Horrelako deimodu gehienak hasierako hortzak iraun bitartean erabiltzen dira; ez dira izengoitiak, kokka falta zaie ezizen bihurtzeko.

Anaiatxo-arrebatxoek, euren anaiatxo-arrebatxoek izenak ezin ondo esan-eta, parte dute ezizenak sortzen. Anjeltxo entzun, *Anjeltxo* esan nahi, esan ezin, *Kaletxo* esan, gurasoei grazia egin, gurasoek Anjeltxori *Kaletxo* deitzen hasi... Horrelako izenorde batzuek bide motza dute; beste batzuek, berriz, bizitza osorako dira. Esaterako, gure lehengusu bati guztiok *Txintxo* deitzen diogu; Agustin zela jakin nuenerako mutil kozkortuta nengoen ni. Gurasoek eta anaia-arreba zahar-ragoek *Agustintxo* esaten zioten, baina bere hurrengo anaia txikiak *Txintxo*, eta gero guztiek *Txintxo*; eta Hitler artean indarrean zegoela jaiotako gizona, *Txintxo* gaur egun ere.

Ezizenak, kristaua besteengandik bereizteaz gain, lagunaren ezaugarriren bat jasotzen du, gorputzeko edo izaerako ezaugarriren bat, lagunaren jatorria, eta abar. Batzuk adjektiboak dira (Oker, Txiki, Surrandi...), beste batzuk izenak (Basurde, Zezen, Txori, Tramana...), beste batzuk aditzondoak (Bixibixi, Landalan...), konposatuak (Jandalo, Artuarte...).

Lagunari, kristauari, besteek ipintzen diote izengoitia; ez da izengoitidunak berak sortua. Norberetzat sortzen den izengoitiari ez al diote *pseudonimoa* esaten? Artistek-eta, idazleek-eta, horiek sortzen dituzte eurentzat *pseudonimoak* (*autopseudonimoak* -?-). Erljiosoen izen aldaketak izengoitiak al dira? Esate baterako, herrian Mirentxu edo Bittor zirenek moja edo fraide

sartu eta izentzat hartzen dituzten Sor Estefania de la Madre Dolorosa edo Fray Cipriano de San José, horrelakoak zer dira? Bakterioak eta birusak bezalaxe, gizarteko maila guztietan sartuta eta zabaldua egon dira ezizenak; hori jendeak irudimen bizia izan duen seinale da.

Izengoitiak izena estali, ito eta ahaztarazi ere egiten du maiz. Denok ezagutzen ditugu kasuak. Bat aipatu nahi-eta, hona ondorengoa. Txomin Agirreren *Kresalako* pasartea da:

“Badakit albistari-zabaltzallea ibilli dala iñoiz eskutitz bat zeñentzakoa zan ezin argitaraturik. Sr. D. Julián Iragorri eukan estalkian, ta Julian Iragorri nor zan ezekian iñok. Atso-agure guztiai itaundu jakuen, ta atso-agureak etzala, esan eben, erritarra izango. Azkenean, apaiz nagusiari eskerrak, agertu zan eskutitzaren jabea. Zein izango ta *Saguzarra* deituten jakon gizontxu bat zan.

–Orixe be bada ipuña, –esan eieban orduan Artoberok–Saguzarrari Don Julian asmau eideutsie.”

Nork bere buruari jarriak ondo pentsatuak izaten dira. Nork bere buruari jarrietan jartzailearen asmaoa bere onerakoa da, zer ba! Besteen artean ez da derrigorrezkoa asmo ona eta, beraz, denetarioak ditugu: gustukoak, minak, haserrebidetakoak, asmo zitalez asmatuak, bihotzez jarriak, nahi gabe sortuak, adarra jotzekoak, aspaldi-aspaldikoak, atzo-herenegungoak...

Aundia, Txikia, Ederra, Pio IX, Zorritsu, Rita Hayworth, Eroa, Katolikoa, Herrikoxeme, Basurde, Pancho Villa, Gabo, Ikaragarria, Kakax, Kopronimo (kakati), Caravaggio, Marlene Dietrich, Luxia, Filipo III... Izengoiti horiek guztiek izena dute ezkutuan, gaurko eta aspaldiko herriko jende xumearen, artisten, iraultzaileen, boxeolarien... benetako izenak.

Eta izengoitiaren eta ezizenaren senideak dira deitura, epite-toa, gaitzizena, gaizkizena, izenburua, izengaintkioa, izengaiztoa, izengatxa, izenordea, kalifikatzailea eta sisga. Honela ere egin dezakegu baten baten aipamena: Larraskituko Axeria, *benetako izenez* Pedro Ibinaga edo Dominika Irزابال, *beste izenez* Dominika Eder; edo *hotsez* Marrajo.

Hau idatzi duena da, bere izenez.

Kaxildo Alkorta, laguna

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



EraLan egitasmoa

Hizkuntz normalizazio planen lidergoa berritzen

EraLan egitasmoa Soziolinguistika Klusterraren (www.soziolinguistika.org/eralan) baitan sortu den ikerketa aplikatua da. Bi hitz ditugu oinarrian: erabili eta lan. EraLanen helburua, beraz, lan munduko organizazioetan, publiko nahiz pribatuetan, euskararen erabilera eragiten duten aldagaien inguruko ikerketa egitea da.

Lidergo aldagaian sakontzen dihardugu biurteko honetan EraLanen baitan. Zergatik lidergoa eta ez beste aldagairen bat?

Hautu hori egin zuten EraLanen lehen aldiaren parte hartu zuten kideek. Beraien iritziz, garaia zen euskara planetan paradigma aldaketa bat gauzatzeko, hots, euskara planen ardura soilik Euskara Zerbitzuarena izatetik, organizazio guztiaren egitekoen artean kokatzeko. Paradigma aldaketa horretarako, aintzat hartu da normalizazio bideak 30 urtetan utzi dizkigun erakutsiak. Diagnosi horretatik abiatu ginen, beraz, eta euskara planetan erabili diren lidergo moten analisi egiteaz batera, lidergoa kudeatzeko moduen inguruko ekarpenak egitea dugu helburua.

Lidergoaren baitan hainbat eremu sartzen ditugu, eragin-esparru ezberdinetatik egiten direnak: politikariaren lidergoa, enpresetako maila exekutiboan daudenena, euskara teknika-riena, euskara batzordeena, planak eragiten dituen langileena edota langileen ordezkariena. Eta maila guztietan pertsonen arteko harremanak kudeatzeko modu berri bati ireki nahiko genioke atea EraLanen, erabilera planak eraginkorrak izan daitezkeen bai; baina, erakundeak hobetu daitezkeen ere bai, berritzaileago, demokratikoago eta jasangarriagoak izan daitezkeen. Horra hor gure iparra.

*Lidergo eraldatzaileak*¹ harremanak kudeatzeko modu berria dakar. Helburua izango litzateke norberak lortzea espero ez duen tokira eramango duen lidergo mota garatzea, norberaren espektatibak gaintzen dituen puntura eramango gaituena. Funtsean, lau aditzetan laburbilduko genituzke bere ezaugarriak: bestea *entzuten* duena, bestearengan arreta jartzen duena; besteari *galdetu* egiten diona; bisioa *argitzen* diona, eta *eredu dena*, koherentziaz jokatzeko duena. Euskara planetara etorrira, bestearen ekarpena integratuko duen eredu ari gara, komunikazio prozesua bideratuko duena eta koherentziaz jokatzeko duena.

Lidergoa ikertzeko, beraz, bi xede jarri dizkiogu geure buruari:

1. Hizkuntzaren eraldaketa prozesuetako lider mota ezberdinak sortzeko, antolatzeko eta eraginkortasuna lortzeko estrategiak lantzea. Lidergo-kateak nola landu aztertuko dugu.
2. Hizkuntza eraldaketa prozesua bideratzeko liderrak erabil dezakeen diskurtsoaren lanketan sakonduko dugu;

lider exekutiboek darabilten diskurtso-moldeetarako argudio-bateria sortzea da helburua.

Zertan gauzatzen da hori? Bada, Administrazioa ekarrira, bost esku-hartze egingo dira:

Bermeoko Udalean, ardura politikoak zein teknikoak dituzten sei kiderekin ikerketa-interbentzioa egiten ari dira. Lider kateak aktibatu nahi dira, ahozko erabilera areagotzeko eta erabilera plana hobeto mamitzeko eta kudeatzeko bideak zabaltzeko, estrategiak adosteko, diskurtsoa egokitzeko... Erabilera plana eraginkorrak izatea da helburua, parte hartzaileagoa.

Gipuzkoako Foru Aldundian, bi ekimen gauzatuko dira. Bate-tik, hiru eztabaida-talde egingo dira estatus ezberdineko pertsonekin, hizkuntza planarekiko beraien diskurtsoak bildu eta lidergo partekatura iristeko. Bestetik, maila politikoan jendurereko ekitaldietan hizkuntza portaera batzuk aldatuko dira eta horien ondorioak neurtuko dira; nolabaiteko hizkuntza lidergoa aktibatuko da asertibitate linguistikoaren bidetik.

Gizarte Zerbitzuetako Mungialde Partzuergoan, Elhuyar Aholkularitzaren bitartez, lidergo formal eta informala aktibatuzko eraldaketa-prozesu bat jarri dute abian eta eraldaketa horretan zerikusia duten aldagaiak identifikatu eta aztertu ere egingo dituzte.

Bizkaiko beste udal batean, berriz, euskara planaren baitan lanpostu bakoitzari dagokion rola definitu eta aplikatu ondoren, hainbat aldagairengan horrek sortzen duen eragina neurtuko du Ahize-AEK-k.

Beste ikerketa-interbentzio batzuk ere abian dira baina enpresa pribatuetan garatzen ari dira. Izendatu besterik ez ditugu egingo: Gipuzkoa Donostia Kutxa, Fagor Ederlan eta JEZ Sistemas Ferroviarios. Azkeneko biak Emun Koop. E.-ren eta Artez euskara zerbitzuaren eskutik, hurrenez hurren.

Administrazioa eta berrikuntza lotzea ez da lan erraza. Baina euskara planei aitortu behar zaie nolabaiteko aitzindaritzarako erakunde zurrunen modernizazioan. EraLanen parte hartzen duen enpresa gizon batek esan ohi du hizkuntza aldaketa egiteko gai den enpresa prest dagokeela edozein berrikuntzari ekiteko. Hori zailagoa da Administrazio Publikoaren kasuan. Zailtasunez betetako bidea izan ohi da barne-komunikazio zurrunari aurre egitea, departamendu arteko kooperazioa sustatzea, edota langileen formazio eskaintza antolatua faltari aurre egitea. Lidergoaren lanketa erreminta egokia izan daiteke bakoitzaren eragin-esparruan ekiteko. Laster kontatu ahal izango dugu ezer aurreratu dugun ala ongi pasatzeko modu bat baino ez den izan abenturatxo hau.

¹ Bass & Avolio, 1994. *Improving organizational effectiveness through transformational leadership*. Thousands Oaks, CA: Sage Publications.



Kirmen Uribe: “Poesia da bizitzako momentuak hobekien jasotzen dituen generoa”

“Inspirazioa bada, baina lanean harrapatu behar zaitu”. Esaera da, idazlearen lanaren ezau-garriak laburtzen dituena: lehenengo, behar da asmatu; ondoren, behar da asmatutako, amestutako hura landu. Horretan zen Kirmen Uribe, idazten, telefono dei ezohiko batek lana etenarazi zionean. Espainiako Narratiba Saria. Zitzuan barreiatu zen sariaren hotsa, hedabi-deak hartu beharra, batari eta besteari erantzun beharra. Zalaparta baretu ostean, amarrak askatu eta itsaso handian barna abiatu da *Bilbao-New York-Bilbao*, idazlearen lehenengo ele-berria.

Espainiako Narratiba Saria irabazi duzu... Eta orain zer?

Orain, lasaialdia. Espainiako ministroaren deia jaso nuen idazten ari nintzen, orain hitz egiten ari garen mahai honetan bertan. Ez nuen deia espero, jakina. Deia hartu eta harritu egin nintzen. Ordu erdia igaro eta lasaitu nintzen. Eta lasai igaro nituen ondoko egunak, horixe eman dit-eta sari horrek: idazten jarraitzeko lasaitasuna. Astiroago idatz dezaket, pausuak hobeto neurtuz. Bestalde, ate asko zabaltzen ditu sariak, eta hori ere hor dago. Lehengo batean Euskadi Irratian Jaime Otamendi esan niona: euskaldunak partida guztiak irabazi nahi ditu, beti, baina horregatik beragatik galdu egiten ditugu gehienak... Nik onartu egin dut saria. Batzuen iritziz, galera da sari hori. Nik, berriz, asko irabaziko dudala uste dut, gauza on asko etorriko zaizkidala, bai itzulpenak, hizkuntza gutxitu askotara, besteak beste; bai euskal kultura hor zehar gehiago zabaltzea, beste ikuspegi bat ematea. Sari honen bidez zer irabazi ahal izango dugunari begiratu behar diogu.

Zertan dituzu lagungarri Bernardo Atxagak eta Unai Elorriagak sari hori bera jaso ondotik egingako bideak?

Biena zait lagungarri. Bernardok [Atxaga] oso ondo kudeatu zuen saria. Ate asko zabaldu zitzaizkion haren bidez. Pau-soak zuzen ematen asmatu zuen. Nazioartekotasuna lortu zuen. Baita Unai ere, baina, uste dut Unai [Elorriaga] gazteegi zela saria jaso zuenean. Oso gazte harrapatu zuela. Lehenengo liburua zuen, eta zailago da horrela. Nire

kasuan, uste dut oso momentu onean harrapatu nauela, badut ibilbide bat egina, tontor batzuk igoak. *Bitartean heldu eskutik* ingelesez dago, AEBetan argitaratuta, adibidez... Sari hau ere tontor bat izatea nahiko nuke. Orain arte-

ko tontor garaiena da, baina etorriko dira tontor gehiago ere. Einsteini ez zioten Nobel saria erlatibitatearen teoriatik eman, aurretik egindako beste lan batengatik baizik. Nik idatzi gabe daukat oraindik nire “erlatibitatearen teoria”.

40 urte ere ez dituzu...

39! Kar, kar, kar...


Esana da 40 urtetik gora hasten dela idazlea bere onena ematen...

Erabat ados nago horrekin. Edward Said-ek badu lan bat egina helduta-suneko liburuei buruz, hau da, idazleak helduaroan zer idazten duen

aztertzen du. Niri oraindik urteak geratzen zaizkit, irakurketak, bizipenak... Ikasten ari naiz oraindik! Beste hogeitau urte lanean segitu behar dut nik. Ea hogeitau urte horietan maila ona izatera heltzen naizen.

Zein momentutan harrapatu zaitu sariak?

Une ezin egokiagoan, bete-betea. Benetan diot. Nobela idatzi eta gero, nobela ausarta, proposamen literario berria eginez datorrena... nik 39 urte... bidaiak ere egina... saria jasotzeko momentua nuen. Lehen buruan neuzkan liburuak idazten jarraituko dut, baina beste lasaitasun eta konfiantza batekin... Gure amak maitasun handia eman izan du beti, eta ni oso maitatua izan naiz, beti. Maitasun keinuak behar ditut, eta saria, alde horretatik, maitasun keinua zait. Badira bestela diotenak, zigorra ona dela, kritika txarretik asko



ikasten dela... Ez dakit, bada! Baita sariekin ere! Sariekin ere, maitasunarekin, asko ikasten da!

Ez nuen ulertu zuk saria jaso, eta zenbaitek zartailua atera eta zure lanari zigorka ekitea, liburua argitaratu eta urtebetera, gero! Haatik, irakurleak maitasunez ari zitzaizkizun lehen, eta halaxe ari zaizkizu orain...

Uste dut kritika asko liburua atera aurretik ere idatzita zeudela. Ez nuke esango fede txarra egon denik, baina bai liburuari akatsak –eta akatsak besterik ez– bilatzeko gogoia. Batetik, hori. Bestetik, ezjakintasuna. Nobelaren planteamendua oso “berria” da –Frantzia egiten da, AEBetan ere bai, Espainian oraintxe hasten ari dira...–, autofikzioa, edo alterfikzioa izenekoa, munduan egiten den zerbait da. XXI. mendeko teknologia berrien ondorioz idatzitako nobela... Claudio Magrisek esaten du gure memorian geratu diren liburu on horiek akatsez beteta daudela. Zoaz Picassoren *Gernika* ikustera: margo tantak ikusten zaizkio, tantak! Akatsak ditu! Irakurleak, berriz, liburuaren arima bereganatzen jakin du. Irakurleari berdin zaio nire liburuak egitura berritzailea duen ala ez. Irakurtzen du, gustura irakurtzen du; ala ez. Horrekin geratzen naiz ni. Uste dut denborarekin asko haziko dela liburua. Beste era batera irakurriko da... Nobela atera ondoko elkarrizketetan ere horixe esan nuen, eta hala izango da. Saria baino lehen, zortzi mila ale zituen salduak, eta saria eta gero, beste hainbat.

Irakurlearen jarrerak balio ditu.

Zoragarria izan da-eta! Zenbat e-mail jaso ditudan, jendeak nola bizi izan dituen nobelako istorioak... Bitxia da, ze nik gure familiako kontuak kontatzen ditut! Jendeak beretzat hartzen ditu! “Aita hil eta gero izaten duzun ametsa... Nik ere amets hori izan nuen!” E-mailak, asko, eta kalean zoriondu ere, askotan, liburuagatik. Ez alderdi teknikoarengatik, baizik eta kontatzen den hori benetakoa delako.

Nobelak –generoaz ari naiz–, berezko zailtasuna du: orrialdeak joan, orrialdeak etorri tentsioari luzaz utsi beharra...

Zaila da hori, oso zaila...

Nola jardun duzu tentsio horri eusten?

Asko pentsatuta! Horixe zen nire kezka handienetakoa... Lan handia egin nuen egiturari buruz pentsatzen: istorioak nola txertatu, haiek bata bestearekin nola lotu, pertsonaiak nola tar-

tekatu... Lan handia. Nobelak kontakizunen bidez eusten dio tentsioari. Kontakizunak dira nobelaren atomoak, haiek eusten diote nobelari. Ez dago trama handirik, bizitzan ere ez dago! Ez dago intrigarik, ez intriga nahirik. Nik ez dut nahi irakurleak nobela azkar irakurtzea, bukaeran zer gertatzen den jakiteko. Hori bukatu da! Hori zineman egiten da, eta telesailetan. Nik zera nahi izan dut, irakurleak nobela bukatzeko gogorik ez izatea, esaldiz esaldi joatea, bukatzeko penetan. Irakurri bitartean gozatzea.

Horrek badu zerikusirik Gabriel Garcia Marquezek esaten zuen harekin, alegia, *karga* nahi zuela orrialde bakoitzean?

Bai. Zerikusi handia du. Garcia Marquez oso zigortua izan da. Garai batean, errealismo fantastikoa zela-eta, goratu zuten, baina ondorengo belaunaldiak gutziz arbuiatu nahi izan zuen. Dena dela, Garcia Marquez oso idazle ona da, oso ona, eta aitortu behar dut nire nobela idazten ari nintzela *Cien años de soledad* berrirakurri nuela. Ez dute ikustekorik, baina badute ikustekorik. Garcia Marquezek zioen: “Istoria hau idatzi nahi dut... gure amamak kontatuko balu bezala”. Horixe bera da nire kasua, amama da kontatzen duena.

Zenbat lagundu dizute astero-astero *Berría* egunkarian eta bestetan idatzi izan dituzun zutabeek?

Ikaragarri! Ikaragarri, zutabeetan ahotsa aurkitu dudalako. Zutabeetan egindako lanari esker aurkitu dut ahotsa. Zutabeetan egindako lanari esker trebatu dut eskua... Zutabeetan argitaratutako istorio zenbait nobelan daude, nobelarako berreskuratu


nituen, hantxe daude, beste funtzio bat betetzen badute ere. Oso eskertuta nago zutabegintzari.

Poesia egiten ere lagundu dizute zutabeek...

Bai. Hamaika urte egin ditut zutabe idazketan, astero. Nire koardernoa izan dira, nire egunerokoak. Zutabea kutxa gertatu zait, han gorde ditut nire pentsamenduak, nire irakurketak, nire bizi-penak... dena. Gauza asko ekarri ditut handik nobelara, baita poemetara ere.

Non dago gorderik zure literatura, nobelan, poema liburuan, ala zutabeetan?

Kar, kar, kar... Hiruretan, dudarik gabe hiruretan. Arlo ezberdinak dira hirurak, baina errealitatetik jasotzen duzun izpia zutabeetan “gordez” gero, hantxe dago, gorderik. Kamera txiki bat



erabiltzea bezala da. Kamera hartu, grabatu, eta gordeta dituzu irudiak. Ondoren dator haiek lantzea. Hala ere, zutabetik nobelara alde handia dago, nobelan egitura da-eta inportanteena. Zutabetik poemara ere handia da aldea, poesian hizkuntza da-eta garrantzikoena.

Bilbao-New York-Bilbao nobela izanagatik ere, pro-sazko lana, poema bat ageri da, amaieran. **Nobelaren giltzetako bat, behin edo behin esan izan duzenez. Ez duzu bestelako paragraforik erabili, poema baino. Zer duzu poesia?**

Bizitzako momentuak hobekien jasotzen dituen generoa. Bizitzan benetan inportante diren gauza horiek poesiak biltzen ditu hobekien. Poesiak duen indarrak ez du, ez nobelak, ez ipuinak. Poema on batek barrua iraultzen dizu, bizitzako indar guztia duelako poema on batek... Poemak ezin dira bata bestearen ondoren idatzi, mekanikoki, poemak sentitu egin behar dira...

“Irrati txikia” izeneko poema argitaratu duzu Erlea aldizkarian. Poemaren atzeko aldea kontatzen duzularik jakin dugu poema horrek hamar urte egin dizkizula tiraderan gordeta.

Ahaztuta, egoera politikoa ere aldatu egin zelako! Gero su-etena etorri zen, su-etena hautsi ondoren, egoerak okerrera berrira, eta orduantxe berreskuratu nuen poema. Halabeharria izan zen, poema hura idatzi nuela ahaztuta nuen-eta. Egoera politikoa okertu zenean agertu zen, deika ari balitzait bezala...

Poemaren atzeko aldeari dago-kionean, “Konponduko al da gurea ni hil aurretik?” galdera. Poeman, berriz, “konponduko da dena” diozu...

Nik uste dut baietz, konponduko dela. Esaldi hori gure aitaita-amamek esaten zuten, gure aitak... Joanak dira aitaita, amama, aita... Gure amak ere esaten du, “Konponduko ahal da dena ni hil aurretik!”. Konponduko da, nahiz eta denbora pixka bat igaro behar den oraindik.

Gure idazle batek askotan esan izan zuen nazkatuta zegoela politikariek haren izena behin eta berriz ahotan erabiltzen zutela-eta. Zure izena ere hitzean hartzen hasita daude, eta ez nolanahi...

Bai... Ez dakit... Ni esker onekoa naiz. Lehendakariak nire poema irakurtzea detailatzat daukat. Detailea, bere aldetik. Baina hortxe utzi behar da. Ez dago identifikazio politikorik egin beharrik... Euskaldunok askotan jokatzen dugu horrela, laguna lagunetara. “Hau gurea da! Hura ez da gurea!”. Hori alde batera utzi behar dugula uste dut. Ni idazlea naiz, independentea, kritikoa... Bat nator Edward Saidek esaten duenarekin, hau da, pentsalariak beti izan behar duela independentea eta kritikoa. Era berean, ni euskalduna naiz, ni hemengoa naiz,

injustiziaren kontra nago, eta beti jarraituko dut horrelakoa izaten. Gazte nintzenez, kartzelara sartu ninduten bakezale izateagatik. Kirmen hori ere bizirik daukat nire barruan...

Idazle horrek berak esaten zidan zalaparta honek –sariak, zenbait kritika ezkorrek, politikariek zure izena ahotan hartzeak...– plazara atera zaituela. Zuri begira dauzkazu fokuak. Plaza txikiagoan zintugun lehen, plaza nagusian orain...

Ez da gezurra, baina ez diot ardura horri ihes egiten. Ez diot ihes egin nahi ere. Uste dut fokuak norberari begira jartzen direnean, zerbait esan behar dela, zerbait ona. Horrek ardura dakar, jakina. Hitzak neurtu behar dituzu, mezuak ondo azaldu... Baina, badiotsut, ez diot ardura horri ihes egin nahi. Gustatu ala ez, pertsonaia publiko izateak horixe du. Siri Hustvedt-ek ere, Paul Austerren emazteak, esaten zuen horrek idazleari, askotan, kontraesan eta kezka asko sortzen dizkiola, eta egia da, baina hor ere jokatzen jakin behar da, eta nik aha-

leginak eta bi egingo ditut ondo jokatzen eta gure hizkuntzaren eta kulturaren ikuspegi atsegin eta zabala ematen.

Zer aldatu da duela hamar urte Mikel Urdangarinekin batera Bar Puerto egiten zuen Kirmen Uribe hartatik honako idazle honetara?

Seguruago idazten dut orain, hobeto. Burutik eskura arteko tartea laburragoa da orain. Aizkolari banintz, kolpeak orain askoz ere zuzenago ematen ditudala esango nuke. Kolpeak bere tokian. Beste alde batetik, bera dut arima. Bar Puerton benetako jendeaz hitz egi-

ten nuen. Benetako jende horrek bere bizitza kontatzen zuen, agertokian ageri ziren nire literaturarekin nahasturik, fikzioa eta errealitatea nahasten ziren... *Bilbao-New York-Bilbao* hori bera da, berrehun eta berrogei orrialdetan. Bar Puertok hogezi zituen! Kolpeak zehatzago jotzen ditut orain, baina berak dira kezkek, bera arima.

Duela zazpi urtetik hona gordeta daukat etxean orri sorta bat, hogeit bat orrialde, proiektu baten hasiera direnak. Dos amigos ageri da izenburuan, Kirmen Uribe egile...

Gordeta dituzu?... Kar, kar, kar... Bada, gorde! Kar, kar, kar... Ondo gorde hori! Kar, kar, kar...

Miel A.Elustondo
Kazetaria



Mundua on line

Azkue Fundazioa

Teknologia berrietan eta Interneten euskararen presentzia areagotzeko eta erabilera sustatzeko asmoarekin sortu da Azkue Fundazioa. Hizkuntzen normalizazioan teknologia berriek duten garrantziaz jabetuta, fundazioak sarean hainbat baliabide elektronikoko jarriko ditu, eta gaur egun Interneten dauden ekimenak ere bildu eta indartuko ditu.

Fundazioak hiru ardatz nagusi landuko ditu: euskara, teknologia eta binomio horren gizarteratzea. Asmoa, administrazioarekin eta unibertsitateekin sinergiak bilatzea izango da, beti ere euskara eta teknologia berriak bultzatuz. Azkue Fundazioaren Patronatua honako bost erakunde hauek osatzen dute: Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Euskaltzaindia, Deustuko Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Fundazioak, sarean honezkero abian dauden hainbat ekimen bultzatu behar ditu. Adibidez, *Mediategia* izeneko proiektuan multimedia-artxibo bat osatuko dute, orain arte euskaraz formatu digitalean argitaratu den materialarekin.

Lan osoa partehartzailea izango da, eta azken urteetan zabaldu den 2.0 deritzon filosofiarekin bat egingo du. Creative Commons-en oinarritutako jakintza librea, *Xuxen Bizkaieraz* zuzentzaile ortografikoa, *Kaixo Frankie* bideo-jolasa... hainbat proiektu barneratzen ditu Azkue Fundazioak lehen urrats hauetan. Eta aipatutako guztiak doakoak dira. Horretaz gain, Interneteko gizarte-sareetan ere muturra sartu nahi du fundazioak, Facebook arrakastatsuan, besteak beste.

Baina, dudarik gabe, *Wiki Plaza* du izena aurkeztutako proiektuen artean entzutetsuenak. Wikipedian, gaur egungo entziklopediarik ezagunenetarikoa, euskarak ere badauka bere txokoa. Momentuz, 46.000 sarrera daude geure hizkuntzan, baina bi urteren buruan 70.000 izatea du helburu Plaza horrek, fundazioaren arduradunen esanetan.

Eta honetaz aparte, *Euskararen Interpretazio Zentroa* deritzon euskararen historia eskegiko dute sarean; ahotsak.com webgunea ere bultzatuko dute, euskararen ahozko ondarea katalogatzeko asmoarekin, eta abar.

Egitasmo hauek guztiak www.azkuefundazioa.org webgunean daude ikusgai.

Luis Elizondo
luis@hegoa.info

Bai Euskarari Ziuertagiriaren 2009ko ekitaldi nagusia

Ziuertagiriaren Elkarteak urteroko ekitaldi nagusia egin zuen abenduaren 14an, Gasteizko Artium museoan. Bertan izan ziren, besteak beste, Arabako euskara, kultura eta kirol diputatua eta Britainiako eta Herrialde Katalanetako ziuertagiriaren elkarteetako zuzendariak. Dena den, ekitaldiko benetako protagonistak Bai Euskarari Ziuertagiria jaso zuten entitateak izan ziren. Ekitaldi horretan, bereziki, euskararen normalizazioan aurrera egiteko hartu duten erantzukizuna aitortu eta eskertu nahi izan zitzaizen entitate horiei. Abenduko ekitaldi horretan bi berrikuntza sartu zituzten; batetik, *Bai Euskarari* sariak banatu ziren lehen aldiz, eta bestetik, *Bai Euskarari* aldizkaria aurkeztu zuten. Lehendabiziko sari hori Elgoibarko Makina Erremintaren institutuak eta JEZ Sistemas Ferroviariosek jaso zuten. Aldizkariak lau hilabete behin ikusiko du argia.

“Orotariko Euskal Hiztegia” (OEH) sarean dago, Euskaltzaindiaren webgunean

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) sarean jarri du Euskaltzaindiak eta Akademiaren helbidean (www.euskaltzaindia.net) aurki daiteke. Sarean jartzeko, bi bertsio prestatu dira: bata PDF formatuan, testu jarraitu moduan ordenagailura jaits daitekeena, eta bestea, web bidez, sarrera nagusiak bilatzeko aukera eskaintzen duena. Internet bidezko zabalkunderako sortutako bertsioek oinarri hartu dituzte paperezko edizioaren prestaketan erabili ziren datutegiak.

Orotariko Euskal Hiztegiak euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jaso eta antolatzea du helburu. Lehen liburukia 1987an argitaratu zen paperean, eta 2005ean azkena, hamaseigarrena. Orain, Euskaltzaindiak sarean eskaintzen duena hiztegiaren oinarriko bertsio elektronikoa da eta Creative Commons lizentziarekin banatzen da. Bertsio horrek argitalpen elektronikoen lehen urratsa izan nahi du. Dena den, Euskaltzaindiak hiztegiaren egituratze-maila osatuago bat lortu nahiko luke etorkizunean.

Matxin itzultzailearen bertsio hobetua garatu du Eleka enpresak

Matxin gaztelania-euskara itzultzaile automatikoaren bertsio hobetua garatu du Eleka Ingeniaritza Linguistikoa enpresak, Elhuyar Fundazioarekin eta EHUKo IXA taldearekin elkarlanean. Bertsio berritu horrek bi ezaugarri nagusi ditu; batetik, gaztelaniatik euskararako itzultzailea hobetu da; eta bestetik, euskaratik gaztelaniarako Matxin itzultzailearen prototipoa sortu dute.

Duela bost urte, Eleka Openrad kode irekiko itzulpen automatikorako plataforma garatzen hasi zen Galizia eta Herrialde Katalanetako enpresa eta unibertsitateekin batera. Egungo Matxin itzultzaile automatikoaren bertsio hobetua Openrad plataforma horren parte da, eta horixe da, hain zuzen ere, duen balio erantsia: behin motorra garatu ondoren, komunitatearen esku geratzen da. Bi itzultzaileak www.openrad.com orrian aurki daitezke, doan.

AI, AI, AI, (EL) EUSKERA...

DBHko irakasleen batzarra zen, ebaluaketa batzarra, hain zuzen. Ikastetxea kontzertatua da, mojek gobernatua, eta auzo apal baten kokaturik dago. Agian horregatik, ohizko ikaslea ez da hiriko beste ikastetxe pribatu batzuetako neska-mutiko txintxoak, txukun jantzia nahiz ikastuna izaten. Ikastetxe horretan estudianteak oso itxura eta jatorri desberdinetakoak izaten dira, orainsu arte A eredu hutsari eutsi diote, eta azterketetako noten batez bestekoa ez da inori harro erakusteko modukoa.

Emaitzen berri ematen ari ziren batzartutako irakasleak, eta horiei buruz eztabaidatzen, ikasle bakoitzaren egoera, portera, jarrera eta abarrera banan-banan aztertuz. Hauetariko askok eta askok irakasleek eta, batez ere, zuzendaritza taldeko kideek nahi zuketean baino nota askoz txarragoak zeuzkaten.

–Matematikak ere suspenditu ditu Vanessak –bota zuen halako baten zuzendariak, atsekabe keinuaz–. Zelako larru gogorra daukan neska honek! Ez dakit zer egin dezakegun berarekin –isilaldi laburra egin zuen serorak–. Ea, ikus dezagun zer egin digun beste ikasgaitan.

Geografia eta Historiako irakaslearen txanda heldu zen eta Vanessak ikasgai horretan ere huts egin zuela adierazi zuen.

–Baina, baina... –kexatu zen ostera ere moja arduratsua–, berriz suspenditu du Geografia eta Historia gure Vanessak? Nola liteke hain alferra izatea neskatila? Ez da tonta, ba, pixka bat gehiago ikasiko balu...

Minutu batzuk eman zituzten neskaren bilakaera aztertzen batzarrean. Gero euskarako irakaslearen txanda iritsi zen, eta Vanessak aurreko ikasgaitako emaitza berbera izan zuela esan zuen. Zuzendariak ezezko keinuak egin zituen buruaz, hitza berriz hartzeaz batera.

–Ai, ai, ai, euskera... –erruki keinuak egin zituen andreak–. Hain da zaila euskera! –isilik geratu zen pixka baten–. Vanessa gaixoa; ez du kurtsoa errepikatu beharko euskeraren erruz, ezta?

Egia esan, ez naiz gogoratzen Vanessak kurtsoa errepikatu behar izan zuen ala ez. Edonola ere, badakit –lekukoak hala kontatuta– batzarra luze joan zela eta jarraian beste ikasle askoren espedienteak igaro zirela mahaitik. Bitxiak ziren dena gaudituta zeukatenak, eta arruntak, oso arruntak, euskara suspendituta zeukatenak. Arrazoietako bat irakaslearen jarrera zen. Izan ere, gaztea zen, fakultatetik atera berria, eskolara gauzak ondo egiteko gogoaz ailegatua, eta ez zitzaion buruan sartzen bere ikasgaia halako pagotxa izan zitekeen inorentzat.

Batzarra amaitu zen, bertaratutakoak sakabanatzen joan ziren pixkanaka, eta zuzendaria euskarako irakasle berriarekin geratu zen mintzatzen apur baten.


–Ai, ai, ai, euskera... –esan zion, erruki aurpegia ipiniz osterera ere–. Zu oraindik gaztea zara eta ez zara konturatzen, baina sinesgaitza da noraino eraman ahal gaituen euskeraren beharrak. Erreparatu diezu, adibidez, Ane eta Mikelen poz aurpegiei?

Irakasleak nahasturik begiratu zion mojarri, bere lankideen aipamen bitxi harekin zer adierazi nahi ote zitzaion asmatu ezinik.

–Orain, behintzat –jarraitu zuen andreak–, Ane haurdun geratu ahal izango da trankil, bere ametsa bete ahal izango du azkenean. Izan ere, zenbat kosta zaien gaixoei EGAKo azterketa gauditzea! Eta jakina, hainbeste ikasi behar zuten, ez zeukaten astirik beste ezertan pentsatzeko. Eta, txarrena, EGA eskuratu ezean, behartuta egongo ginen ikastetxetik botatzen kurtso amaieran, eta lanik gabe geratuko ziren, eta nola emango zieten, ba, jaten seme-alabei lanik eta soldatarik gabe?

Buruaz ezezko keinuak eginez amaitu zuen azalpena zuzendariak, eta irakasle berria mutu geratu zen, zer esan ere ez zekielako. Eta zuzendariak bakarrik utzitakoan ere pentsakor jarraitu zuen, haren hitzak hausnartzen.

Jon Arretxe
Idazlea



Bi puntuen aurrea eta atzea

1. Aurkezpena

Bi puntuak, itxura batean, tolesik gabeko puntuazio-marka bat dira; hala ere, fidatzea ez da komeni. Jakina da bi puntuek harago seinatzen dutela beti; aurkeztu egiten dituztela adibideak, kausak, ondorioak edo argibideak. Horretaz gainera, badituzte beste erabilera espezifiko batzuk. Hantzen, tipografiari eta estiloari loturiko zenbait gai ere landuko ditugu, ezin baita puntuazioaz jardun estilistika albo batera utzita.

2. Ohiko erabilerak

Bi puntuen ondokoak “zabaldu” egiten du aurreko perpaus edo sintagmaren adierazpena.

▸ Zerrendak aurkeztu

Bulegorako materiala erosi behar dugu: orriak, bolalumak, arkatzak, grapak... denetarik.

Etxeko lan guztiak amaitu zituen: erratza pasatu, hautsa kendu eta leihoak garbitu.

▸ Kausa-ondorio harremanak ezarri

Berandu iritsi zen lanera: ez zituen aurkitzen autoko giltzak.

▸ Laburpenak egin

Horma ondo tresnatua zegoen; igoaldiko ipi-apa guztiak ongi aztertuak zituen; entrenamendu-saio gogorak eginak zituen azken hilabeteetan: ahal zuen guztia egina zuen.

▸ Argibideak edo azalpenak sartu

Bi metroko olatuak izanik ere, ez zen egun txarra nabigatzeko: inguru horretan lau metrotik gorakoak ere izaten dira sarri.

▸ Hitzez hitzeko aipuak ekarri, adierazpen-aditza aurrean dela

Martinek esan zuen: “Nora joango gara bazkaltzera?”.

Bi puntuek arindu egiten dituzte esaldiak, menderagailuek edo lokailuek ez bezala; apaindurarik gabeko prosa bakunaren bereizgarri dira. Erreparatu esaldi bikote hauei, haien arteko aldeaz jabetzeko.

Aterkia hartu zuen irten aurretik; euria zarra-zarra ari zuen.

Aterkia hartu zuen irten aurretik, euria zarra-zarra ari baitzuen.

Altunaren esanetan, Larramendi euskaldun zaharberriua zen: euskara ia ahaztu ondoren ikasi zuen berriro.

Altunaren esanetan, Larramendi euskaldun zaharberriua zen; alegia, euskara ia ahaztu ondoren ikasi zuen berriro.

Irakurle zolia ohartuko zen, lehenbiziko adibidea ikusirik, bi puntuak eta puntu eta koma lehian aritzen direla erabilera batzuetan.

3. Erabilera espezifikoak

Aurreko atalean aipatu ditugu bi puntuek ezartzen dituzten lotura semantiko nagusiak. Dena den, badira beste erabilera espezifiko batzuk, ezin albora daitezkeenak.

▸ Denbora-adierazpenak

Denbora-unitateak bereizteko erabiltzen da (ISO 8601 araua).

12:30:24 (hh:mm:ss)

▸ Bibliografia

Hainbat erabilera ditu arlo horretan:

- egilearen izenaren eta lanaren izenburuaren artean
ALBERDI, Andres: *Oinarrizko gramatika*, Elkarlanean, Donostia, 2008.
- azpтитuluen aurretik
ESNAL, Pello: *Testu-antolatzaileak: erabilera estrategikoak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.
- testu barruko erreferentzietan
Ingeleseko egile batzuek zaharkituztat jotzen dute bi puntuen erabilera (Zinsser, 1976: 72-73), baina ez dezagun ahaztu hizkuntza bakoitzak bere sistema duela.

▸ Zatiketa matematikoak

Azaldu beharrik ez dauka honek, ezta?

$24 : 6 = 4$

▸ Administrazioko testuak

Lege-testuen atarikoaren ondoren, testu osoa garatzen denean (gehienetan letra larriz).

ERABAKI DU:

EBAZPENA:

▸ Idatzietako agurrak

Lankide estimatua:

4. Estilistikari buruzko zenbait ohar

4.1. Erredundantziak

Bi puntuek zenbait testu-antolatzailearen funtzio bera betetzen dute (*adibidez, hain zuzen ere, alegia...*). Hala, testugileak bi aukera ditu: bi puntuak ala testu-antolatzailea erabiltzea, baina ez biak batera.

Denetariko oskoldunak daude itsasadarrean; muskuiluak, erezak, txirlak...

Denetariko oskoldunak daude itsasadarrean; besteak beste, muskuiluak, erezak eta txirlak.

*Denetariko oskoldunak daude itsasadarrean; besteak beste: muskuiluak, erezak eta txirlak.

Gogoan izan, gainera, testu-antolatzaileak koma artean idatzi ohi direla.

Beste batzuetan, bi puntuak alferrik erabiltzen dira zerrendak aurkeztean, aurretik erreferentziakiderik ez baitago:

*Antzerki-lana taularatuko da: Zornotza aretoan, Arriola kultura-etxean eta Plateruena kafe-antzikian.

Antzerki-lana taularatuko da Zornotza aretoan, Arriola kultura-etxean eta Plateruena kafe-antzikian.

Antzerki-lana areto hauetan taularatuko da: Zornotza aretoan, Arriola kultura-etxean eta Plateruena kafe-antzikian.

Azken adibidean erreferentziakidea azpimarratzen nabarmendu dugu. Azken egitura hori (erakusle kataforikoa eta bi puntuak), haatik, neurritz gaindi ugalduta da testuetan (itzulpenetan batez ere), zeren oso konponbide soila, ia berehalakoa, ematen baitie erdarazko periodo luzeko testuei. Hobe da, ene ustez, zerrenda korapilotsu eta luzeetarako edo zerrendako osagaiak nabarmen-tzeko uztea, testua nabarmen moteltzen baita.

*Ikastolako gurasoek euskal literaturari buruzko hitzaldi bat antolatu dute biharko. Hizlari hauek izango dira: Andu Lertxundi, Pako Aristi eta Itxaro Borda. Gonbidapenak idazkaritzan bertan jaso behar dira.

Ikastolako gurasoek euskal literaturari buruzko hitzaldi bat antolatu dute biharko. Andu Lertxundi, Pako Aristi eta Itxaro Borda izango dira hizlariak. Gonbidapenak idazkaritzan bertan jaso behar dira.

Aurreneko esaldia bi alditan dator; etenik bezala dago. Bigarrena, aldiz, diskurtso jarraitu bat ageri du, hitz-hurrenkera eraz apailaturik baitago.

4.2. Bi puntuaren eragin-eremua

Aurrenik eta bat, komeni da zehaztea norainokoa den bi puntuaren eragin-eremua, funtsezkoa baita testuak behar bezala antolatzeko. Bi puntuaren ondoko lehenbiziko puntuak da, eskuarki, mugari hori.

Denek onartu zuten akordioa: gobernuak, sindikatuek eta enpresaburuek.

Akordioa urrun dago: sindikatuek hasieratik ez dut begi onez ikusi; enpresaburuek berena baizik ez dute entzun nahi izan, eta gobernuak ez du jakin egoera onbideratzen.

*Akordioak bide luzea egin du: aurretiko lana handia izan da. Bilerara asko egin dira prozesuan zehar. Orduak eta orduak eman dira akordioko xehetasun guztiak adosten.

Badago, noski, beste paragrafo bat hastea bi puntuaren ondoren. Hala egitera, hurrengo paragrafo osoa bi puntuaren aurreko adierazpenari dagokiola joko da.

Akordioak bide luzea egin du:

Aurretiko lana handia izan da. Bilerara asko egin dira prozesuan zehar. Orduak eta orduak eman dira akordioko xehetasun guztiak adosten.

Hala ere, idazlariak kontuan izan behar du hala jokatzeko gero idazkera hanpatu samarra gerta daitekeela.

Azkenik, ez dezagun ahaztu beste aukera bat ere izan ohi dela perpaus-segidak paragrafo bakarrean biltzeko: bi puntuaren ordean beste marka bat erabiltzea.

Akordioak bide luzea egin du. Aurretiko lana handia izan da. Bilerara asko egin dira prozesuan zehar. Orduak eta orduak eman dira akordioko xehetasun guztiak adosten.

Paragrafoa horrela atondurik, hala ere, galdu egiten da bi puntuaren “erakusgarritasuna”, puntuazioa ez baita hain mailakatua eta gardena; irakurketa tratuagoa da, ondorioz.

5. Tipografia

5.1. Ondoko letra xehea eta larriak

Arau orokorra da bi puntuaren ondoren letra xehea erabiltzea, non eta ez den beste paragraforik hasten. Dena den, arau horrek badiu salbuespen batzuk:

- ▶ Hitzek hitzeko aipuak perpaus osoak direnean
Lagunak esan zidan: “Ezetz igarri nor etorri den”.
- ▶ Idatzietako agurren ondoren, puntu eta bereiz egin ez arren
Agur denei: Gutun honen bidez aditzera eman nahi dizuet...
- ▶ Zenbait ohar
Oharra: Larunbatean jasoko dira sukaldeko olio zaharrak.
Kontuan izatekoak: Ez utzi haurrei poltsarekin jolasten, ito egin daitezke eta.
Sail honetan sar litezke idatzi ondoko iruzkinak edo beste era bateko deiak ere.
- ▶ Sintagma bakunen zerrendak
Material hauek behar dira ariketa egiteko:
 - papera
 - margoak
 - kolaZerrendaren osagaiak letra xehez idazteaz landa, amaieran ez da puntuazio-markarik jartzen.

5.2. Irudi eta taulen epigrafeak

Irudi eta taulen epigrafeetan, ordea, ohitura besterik da: bi puntuak barik puntu bakuna baliatzea. Izan ere, beste zenbait baliabide tipografiko erabiltzen dira, azalpeneko testua eta irudi edo taularen erreferentzia bereizteko, batez ere letra motak (etzanak, lodiak edo maiuskula txikiak) txandakatzeko.

1.8 irudia. *Uraren zirkloa*

1.8 taula. **Lapurdikoa biztanleria (1980-1990)**

1.8 IRUDIA. Begiaren atalak

Jakina, argitalpen bakoitzak bere irizpideak finkatu behar lituzke, beti era berean jokatzeko.

Iñigo Roque
UPV/EHUko hizkuntza-zuzentzailea

Krisialditik ateratzeko zergak igo ala jaitsi?

Krisiak maila askotan izan du eragina: finantza-merkatuaren gainbeherak banku eta inbertsio handiak kaltetu ditu; eskaria gutxitu denez, enpresa batzuek itxi egin behar izan dute eta herri-tar asko langabezia gelditu da. Egoera horri aurre egiteko gobernuak erabiltzen duten tresnetako bat zergak dira: zergak igo, herritarren patrika sufrituetan berriro eskua sartuz, eta laguntzak sustatzeko diru gehiago biltzeko; edo zergak jaitsi, kontsumoa bultzatu eta erreperazio ekonomikoa pizteko, baina bereak eta bi pasatzen ari direnentzako laguntzak murriztuz. Zein da neurri-rik egokiena?



Ignacio Zubiri
Ogasun Publikoko
katedraduna, UPV-EHU

Azken urteotan zergak jaisteko joera izan da Euskal Herrian. Krisi garaian joera bera mantendu beharra dago? Edo sektore publikoa indartu eta gastu publikoa bultzatzeko zergak handitu behar dira?

Krisialdi honetan gobernu zentralarena da eskari agregatua suspertzeko erantzukizuna. Euskal sektore publikoak herri-tarrei eta enpresei une latz hauek gainditzen lagundu behar die. Horrek esan nahi du prestazio eta enplegu publikoa mantendu eta handitzea. Nabaria denez, horrek gastu handiagoa ekarriko du. Gastu horren zati nagusia Zor Publikoarekin ordaindu behar da, nahiz eta muga jakin bat gainditu ostean, zentzuzkoena zergak erabiltzea izan, zorra deskontrolatzea arriskutsua delako. Testuinguru horretan, foru-ogasunek hartu dituzten neurriak, hala nola 400 euroko dedukzioa kentzea edo aurrezkiaren errendimenduei aplikatzen zaien tasen igoera, oso zentzuzkoak dira. Beharrezkoak diren gastuak finantzatzen dituzte eta ez dira suspertze ekonomikoarentzako lasta.

Bi oinarriko zerga mota daude: zuzenak, errenta eta aberastasuna grabatzen dituztenak, eta zeharkakoak, kontsumoa grabatzen dutenak. Kontzertu ekonomikoa dela eta, ogasunek zuzeneko zergak nolakoak diren erabakitzeko askatasuna dute, baina ez dute inongo ahalmenik zeharkako zerga garrantzitsueni dagokienez (BEZa, tabakoa, hidrokarburuak...). Azken horiek Estatuak erabakitzen baititu.

Zerga zuzenak teorian progresiboak dira. Hau da, errenta nagusienei dagokie. Praktikan gauzak oso bestelakoak dira. Iruzurra dela eta, errentaren gaineko zerga, gehienbat, klase ertain eta baxuen lanaren errentek ordaintzen dute. Sozietateen gaineko zergak enpresen faktura fiskala %25 murrizten duten dedukzio asko ditu. Gainera, iruzurra begi-bistakoa da. Ondarearen zerga (Ondare eskualdaketaren gaineko zerga) hiru lurraldeetan kendu egin dute (Gipuzkoak 2010ean kenduko du). Horretarako argumentua izan da zerga hori klase ertainek ordaintzen zutela. Egiaz, iruzur

handia egon arren, zergaren %90 600.000 eurotik gorako ondarea (etxebizitza propioa kontuan izan gabe) zuten zergadunek ordaintzen zuten.

Zeharkako zergek proportzionalki errenta baxuenetan dute eragin gehien, aberatsek euren errentaren portzentaia handiagoa aurrezten dutelako. Hori dela eta, euren errentaren zati nagusia ez dago kontsumoaren gaineko zergen eraginpean. Hala ere, PFEZan egiten den iruzurra dela eta, zeharkako zergapena zuzena baino bidezkoagoa izan daiteke.

Errenta ekonomikoak lan errentak baino handiagoak dira, baina zerga-bilketan diru gehiago jasotzen da azken horiekin. Zer dela eta, desoreka hori?

Lanaren errentek atxikipena jasaten dute hirugarren batek, hots, enplegatzaileak, kontrolatu egiten dituelako. Soldata ez diren errentak (honen barruan daude enpresaburu eta autonomoenak) kontrolatzeko zailagoak dira, eta iruzur askoz handiagoa egiten da. Borondate politiko eta baliabideetan beharrezko ahalegina egingo balitz, iruzurra nabarmen murriztuko litzateke.

Zein eragin du iruzur fiskalak? Zer egin daiteke iruzurra murrizteko?

Ogasunek bi kontrol bide erabiltzen dituzte: kudeaketa (zergapekoak deklaratzeko dituen datuak gurutzatzen dira ogasunak ordaintzaile eta finantza erakundeengandik jasotzen dituen datuekin, eta egiaztatzen da deklaratzailak indarrean dagoen araudia ondo aplikatzen duela) eta ikuskaritza. Ikuskaritzak emaitza onak izan ditu, batez ere iruzur sareen kasuan, BEZ sareak, adibidez. Alabaina, ez dio asko erreparatu iruzur estrukturalari: autonomoek, profesionalak, enpresaburuak eta enpresek era sistematikoa egiten dutena. Iruzur mota hori deigarria da eta ikerketa batzuek diotenez, Euskal Autonomia Erkidegoan %18 eta %20 artean dago.

Iruzur hori nabarmen murriz liteke neurri egokiak hartuz gero: baliabide gehiago jartzea (ikuskatzaile eta aktuario gehiago), iruzur egiten dutenei zigor gogorragoak ezartzea (isunak, aurreko aitortpenen errebisioa, iruzurraren publizitatea, errolda berezi batean sartzea...), zorrak kobratzeko baliabide gehiago ipintzea, iruzurraren aurkako borrokaren emaitzen berri ematea urtero batzarren aurrean, polizia fiskala sortzea...

Azken urteotan zergak jaisteko joera izan da Euskal Herrian. Krisi garaian joera bera mantendu beharra dago? Edo sektore publikoa indartu eta gastu publikoa bultzatzeko zergak handitu behar dira?

Sistema fiskala da politika publikoen garapenerako oinarritzko tresna. Europako eredu fiskalak fiskalitate indartsuaren irizpidea du, ekitatea bermatzeko zerbitzu publiko eta gizarte zerbitzu sare garrantzitsu batekin. Globalizazioak lehian jarri gaitu zerga eta gizarte kotizazio merkeagoak izateagatik produktu merkeagoak eskaintzen dituzten gizarteekin. Lehia horri erantzuteko, zergak murriztea beharrezkoa dela uste duen pentsaera bat egon izan da. Aurreko urteetako oparoaldiari esker, ez du zerga-bilketan eragin handirik izan. Orain, krisialdian, zerga-bilketak behera egin du, eta politika publikoak finantzatzeko arazoak ditugu; hain zuzen ere, langabeziaren igoerari aurre egiteko beharrezkoen direnean, eta, gainera, ezagutzen intentsibogoa den beste produkzio eredu batera jo beharra dugunean: I+Gn (ikerketa + garapena) inbertitu. Zaila da behar horiek finantzatzea, zerga-sistemak ez baditu bermatzen beharrezkoak diren errekurtsoak.

Krisiaren testuinguruan, zein joerak ziurtatuko du gizarte-armonia eta justizia?

Beharrezkoa da zerga-sistema krisi egoerari egokitzea. Dena dela, fiskalitatearen egokitze edo erreforma ez da gai neutroa gizarte justizia eta kohesioari dagokienez. Zergen saskia anitza da eta ez da berdin BEZaren gainean jardutea –errenta altu zein baxuek berdin ordaintzen dutena– edo izaera progresiboagoa duten beste zergen gainean jardutea, adibidez PFEZa, Ondarearen zerga (kendu berria Gipuzkoan izan ezik), edo Sozietateen gaineko zerga. Ekitate faltarik ez egotea nahi baldin bada, zerga progresiboagoetan gehiago eragin behar da zuzenetan baino.

Zenbateko eragina dauka iruzur fiskalak? Zer egiten da egoera hobetzeko? Zer egin daiteke?

Aurreko galderarekin uztartuz, ikuskaritza fiskala zerga-tasak bezain elementu garrantzitsua da. Hainbat ikerketek agertzen dutenez, Espainiako estatuan %20tik gorako ezkutuko ekonomia dago, hau da, ez zerga, ez gizarte kotizaziorik ordaintzen ez duena. Krisi garaian hori areagotu egiten da eta, batzuen esanetan, zerga bilketaren beherakadaren arrazoietakoa bat da. Politika publikoentzako kaltegarria da, enpresa legal eta iruzurtien arteko lehia desleiala kaltegarria den moduan. Europarekin homologatzeak esan nahi du, besteak beste, ikuskaritza fiskalerrako giza- eta antolakuntza-baliabide zein baliabide material gehiago izatea.

Begoña Minaur
Kazetaria



Mikel Noval
ELA

ELAk urteak daramatza Euskal Herriko zergen pisu baxua salatzeko. Izan ere, 15 estatuen Europako Batasunean Greziak eta Irlandak bakarrik dute Hego Euskal Herriak baino zerga presio txikiagoa. Hego Euskal Herrian sortzen diren 100 eurotik 33,4 bakarrik erabiltzen dira zergak eta kotizazioak ordaintzeko; 27 estatuen Europako Batasunean, ordea, 39,8 batez beste. Ondorioz, urtero, 5.360 milioi euro gutxiago biltzen dira Hego Euskal Herrian, European egiten den esfortzuekin alderatuta.

Deigarria bada ere, Espainiako estatuan baino 3.080 milioi euro gutxiago biltzen dira Hego Euskal Herrian konparatiboki, eta horrek agerian uzten du Kontzertu ekonomikoaren eta Itun ekonomikoaren erabilera okerra, bai eta horrek guztiak gizarte-gastuan dituen ondorioak ere.

Administrazioaren parte hartze urri hori, ahultasun hori, oso kaltegarria da talde ikuspegitik. Alde batetik, baliabide urri edo apaleko familiek, familia gehienek, gastu publikoaren, eta Administrazioaren parte-hartzearen beharrezko handia dutelako. Eta bestetik, Administrazioaren esku-hartze urriak ezinezkoa egiten duelako gizarte berdintsuago eta justuagoa lortzea.

Krisi garaian, are larriagoak bilakatzen dira Administrazioaren ahuleziaren ondorioak, krisiak gehiago kaltetzen dituelako baliabide apalagoko familiak. Gainera, sektore pribatuak jasaten duen murrizketa konpensatu beharko luke sektore publikoak krisi egoeran, baina hori mugatua dago Administrazio ahul baten kasuan.

Zerga arloko Administrazioaren ahulezia horren arrazoiak anitzak dira, baina, batez ere, bi hauek aipa ditzakegu: zerga maila baxua kapitalaren eta profesionalen errentetan, eta zerga iruzurra kapitalaren eta profesionalen errentetan. Kapitalaren eta profesionalen errentek ikuskatuak izateko duten aukera 100 urtean behinekoa da; bizitza honetan ikuskatuak izateko aukerarik ez badute, nola ez dute bada iruzurrik egingo?

Europako toki batzuetan, politika oso bestelakoa da, lanetik ez datozen errenten %100a ikuskatzen baitu Administrazioak lau edo bost urterik behin. European posible bada, zergatik ez hemen? European zerga presio eta gizarte gastu altuagoak posible badira, hemen ere bai. Borondate kontua baino ez da.

Berotze globala, Euskal Herria hotz?

“Planeta ez dago arriskuan –diote adituek–; gizakia, ordea, bai”. Geuk sufrituko dugu gehien berotze globalaren eragina, animalia eta landareekin batera. Tenperaturak gora ala behera egin, poloak urtu eta itsasoak agertu zein desagertu, planetak bere horretan jarraituko du, azken milioika urteetan egin duen bezala. Lurreko bizitzak, aldiz, egoera berri horretara egokitu beharko du, eta historian inoiz egin ez den abiadan egin beharko du egokitze hori, gainera. Berotzeak eragina izango du gure ingurumenean eta baita gure osasunean ere. Prest al gaude gerta litekeenari aurre egiteko, edo berotzearen aurkako neurriak hartuko al ditugu kalteak ahalik eta txikiak izan daitezen?

Gure gizarte modernoak sortzen dituen gasek –CO₂-ak, nagusiki– eragiten dute hain ezaguna egin den negutegi efektua. Industriek, autoek, zentral elektrikoek... sortzen duten CO₂-a atmosferan gelditzen da, naturak ezin duelako hainbeste CO₂ oxigeno bihurtu. Egungo hazkunde-erritmoarekin jarraituz gero, mendea bukatu orduko bikoiztu egingo da atmosferako CO₂ kontzentrazioa. Gasak sorturiko hodeiak negutegi bateko plastikozko estalkiak duen efektu bera sortzen du, beroa barruan gordez. Eta apurka-apurka, termometroek gora egiten dute.

Greenpeaceko azken txostenek azaltzen dutenez, horrela jarraituz gero, mende honetan zehar munduko tenperatura 6 °C baino gehiago igo daiteke. Ezin da zehazki aurreikusi gorabehera horrek zein eragin izango duen, baina adituek hainbat balizko egoera prestatu dituzte, egon daitezkeen eboluzio posibleen arabera. Panorama beltza da gehienetan: uholdeak gero eta sarriago gertatuko dira, planetako glaziarrrak urtuko dira, munduko ibai asko lehortuko dira, eta itsasoak gora egingo du. Beroak gizaki, animalia eta landareen osasunean ere eragina izango du.

Euskal Herria hoztu?

Euskal Herrian eta gure inguruan ere, aldaketak izango dira, izaten ari dira jada. Greenpeacek dituen datuen arabera, 1984.etik 2000. urtera Pirinioetako glaziarren %85 desagertu dira. Itsas maila urtero 4 mm igotzen ari da. Adituek uste dute mende honen bukaerarako itsasoak 50 zentimetro eta

metro bat artean gora egin dezakeela. Horrek zera esan nahi du: Kantauri itsasoko kostaldean hondartzak desagertu eta gune lauak –itsasadarrak– urez beteko direla.

Hala ere, hainbat adituen ustez, paradoxikoki berotze globalak hotza ekar lezake Euskal Herrira. Artikoa urtean isurtzen den ur geza aldaketak eragiten ari da Golkoko korrontean, Ameriketatik Europako iparraldera ur beroa ekartzen duen korrontean. Ur-emari hau galduz gero, Euskal Herriko eta Europako Iparraldeko itsasoek orain duten epeltasuna galduko dute eta gure kostaldeko tenperaturak ere aldaketak izan ditzake.

Aldaketa horietako asko balizkoak dira, hau da, zientzialariek eskuan dituzten datuen eboluzioa zein izan daitekeen irudikatzerakoan iragarritakoak; baina dagoeneko ikus daitezke hainbat aldaketa mundu osoan. Glaziarren azalera %50 gutxitu da XIX. mendetik hona. Horren eraginez, gero eta sarriagoak dira luiziak, uholdeak eta ibaien ur-mailaren aldaketa handiak. Artikoa murrizten ari da, eta horren ondorioz, munduko itsasoetako ur-maila igoazten du. Lehortek ere gero eta handiagoak dira Afrika, Asia eta Mediterraneoko hainbat zonaldeetan, eta milioika lagun goseteak sufritzeko arriskuan daude. Airean dauden gasen kutsadura osasun arazoak sortzen ari da: arnasketa-gaitzak (batez ere, haur eta nagusiengan), bizi-itzaropenaren murrizketa, garaia baino lehenagoko heriotzak eta ekosistemetan kalteak. Europako Ingurugiro Agentziaren txostenen arabera, 2000. urtean airearen kutsadurak 380.000 heriotza goiztiar eragin zituen. Animaliak ere sufritzen ari dira, eta zientifikoek uste dute 2050erako egun dauden espezieen herena desagertu egingo dela.

Zer egin daiteke?

Arazoa globala denez, soluzioek ere globalak izan behar dute. Kiotoko protokoloan munduko herrialdeek CO₂ emisioak murriztu egin behar dituztela adierazten da, baina protokolo hori indarrean egon den urteetan herrialde gutxiak bete dute. Abenduan Kopenhagen egin zen bilkurak hartu du orain Kiotoren lekukoa, baina oraindik ez dira akordio batera heldu. Txina bezalako potentzia berriek ez dute bere gain hartu nahi beraiek sortu ez duten arazo baten erantzukizuna. Nahiz eta gaur egun asko kutsatu, Txina garapenerako bidean zegoen Europa eta Amerika jada CO₂ isurketa erraldoiak egiten ari zirenean. Aitzitik, AEBak, azken mendean kutsadura handia sortu dutenak, protokoloa eskari eta neurriak betetzeko iheskor ageri dira.

Mundu osoan, herrialde eta gobernuen erabakiek bakarrik lor dezakete berotzea gelditu edo behintzat geldoago egiteko baliabideak jartzea. Hala ere, herritarrok ere badugu maila lokalean zer eginik, energia aurreztu eta kontsumoa murrizteko. Keinu txikiak pentsaera aldatuta bat eragiteko, azken finean gure etorkizuna sostengaezina den gizarte eredu aurreratuaren birmoldatzean datza eta.

Hona hemen abiapuntu izan daitezkeen ekintza batzuk (iturria Greenpeace):



Etxean energia aurreztu. Energia aurrezten duten A klaseko etxetresna elektrikoak erosi, erabiltzen ez diren tresnak itzali (telebista, ordenagailua...), kontsumo urriko bonbillak erabili, gelatik irteterakoan argia itzali, eskuko telefonoa edo mp3a kargatu ondoren kargadorea desentxufatu...

Sukaldean energia aurreztu. Sukalde elektrikoak suak itzali, eta gelditzen den berotasuna erabili janaria prestatzen bukatzeko; hozkailua leku fresko batean jarri, eta ateak ahalik eta denbora gutxien eduki irekita.

Bainugelan energia aurreztu. Dutxa labur bat hartu bainu baten orde, eta txorrota itxi xaboia eman bitartean. Ur ekonomizatzaile bat jartzeak ur eta energia kontsumoa erdira murrizten du. Ahal dela, arropa hotzean garbitu eta lehortzeko eseki, lehorgailuak erabili orde (lau laguneko familia batek urtean 300 kilo CO₂ sortzen du lehorgailuarekin). Ez erabili piladun etxeko tresnarik (hortzetako-eskuilak, bizarra mozteko makinak...), sarera konektatutakoak baino gehiago kontsumitzen dute eta.



Iñaki Antiguada Hidrogeologiako katedraduna, EHU-UPV

Zein eragin konkretu izan dezake berotze globalak Euskal Herrian datozen hamarkadetan?

Berotzea ez da *klima-aldaketa* esaten dugun horrek ekarriko duen gauzarik garrantzitsuen, mediatikoena bada ere. Ez dago zehazterik tenperaturaren igoera zenbatekoa izango den urtemuga jakin batean eta lurralde jakin batean. Modeloek igoerartea (2-5 gradu) ematen dute. Adituek 2 graduko igoeran dute alarma-langa jarria, izaki bizidun guztien osasunean aparteko eragina izango duelako. Urari dagokionez, igoerak gurean ur-lurrinketan izango du eragina eurian baino; lurzoruen ur-defizitak urtean zehar handitze aldera egingo bide du, horrek dakartzan albo-kalte zabal guztiekin.

Zer egin daiteke hori ekiditeko? Garaiz al gabiltza?

Asko eta asko hitz egiten da horretaz; baina, datuak datu, munduan joerak okerrerako dira, eta Euskal Herria ere munduan da. Zergatik, ustez, arazoa denok konpondu nahi, baina okerrera egin? Einsteinek esanak du giltza: “Ezin da arazo bat konponbidean ipini arazoa bera sortu duen pentsaera beretik”. Gaurko eredu ekonomikoa errotik aldatu barik, ez dago horrek berez dakarrena konpontzerik. Baliatzen ez den orainak berandutu egiten du noiz edo noiz hartu beharreko benetako apustuaren ordua.

Kiotoko protokoloa bete ez, eta Kopenhagekoa jaino orduko hainbat herrialdek ez dutela beteko aurreratu dute. Munduko gobernuak nahiko egiten ari al dira?

Ulertu egiten dut; ez justifikatu, ordea, garatu bidean diren herrialdeek errezeloz hartzea garatu omen direnek mahaia gainean jarritako exijentziak, hau da, guztiok murriztu behar ditugula negu-gasen emisioak; “kafea denontzat” esatea legez. Lehenengoa omen den mundukoek *mea culpa* serio egin, eta atzera egin beharko lukete, serio egin ere, bestean aurrean sinesgarri agertzeko. Eta horretarako, gurean ere, pentsaera da aldatu beharreko lehena. Funtsezko arazoa ez da autoa, autopista baizik. Funtsezko arazoa ez da kontsumoa, saltoki handiak baino. Konplikatu egia, seguruenik, klima-aldaketaren sustraia ulertu ez dutenentzat.



Temperatura egokia etxean. Etxea ez berotu edo hoztu gehiegi, 20 °C nahikoa da. Etxeko atearak itxi eta berogailua itzali, etxetik kanpo zaudenean. Leihoetan kristal bikoitzak jarri, beroa barruan gordetzeko. Aire girotua jarriz gero, neurritz erabili.

Bidaiaitu klima errespetatuz. Garraio publikoa erabili. Hegazkina beharrezkoa denean soilik erabili, gehien kutsatzen duen garraio-bidea delako. Gutxi kontsumitzen duten autoak aukeratu. Bizikleta erabili.

Gutxi gehiago da. Energia kontsumo masiboak ez du mundu zoriontsuagoa egiten, baina gure gizarte ereduak kantitatea kalitatearen gainetik jartzen du. Denbora eta baliabideak zentzuz erabiliz gero, arrasto ekologiko txikiagoa utzi eta bizi kalitatea hobetuko dugu. Kalitatezko produktuak erosi: gehiago irauten dute, eta merkantzi trafikoa murriztu egiten da horrela. Haragi gutxiago jan, osasunarentzat ona da-eta; izan ere, FAOren datuen arabera, negutegi efektua sortzen duten gasen emisioaren %18 sortzen du abeltzaintzaren industriak munduan. Janari ekologikoak eta denboraldiko produktu lokalak aukeratu.



Manuel Toharia Valentziako Zientziaren Hiria zuzendaria

Herritarrok berotze globala eta klima-aldaketa zer diren argi al dugu?

Ez dut uste. Klima-aldaketa gure planetan etengabea da eta Industri Iraultza hasi zenetik, daukagun beldurra zera da: nahi-gabe, aldaketa natural horiek aldatzeko gai izaten ari gara. 1975. urtera arte aldaketa hori glaziazio baterantz joango zela uste genuen –gazteenek ez dute gogoan, baina ia erabateko adostasun zientifikoa zegoen–, eta une honetan, ia-ia adostasun berdinarekin, berotze global baterantz goazela uste dugu. Dena dela, sakoneko arrazoiak berdinak dira: herrialde aberatsen bizi kalitatea eta kantitatea asko hobetu duen garapen industrial, baina baliabideak (energi iturriak, ura, janaria...) xahutu eta baliabide horien erabilpen efizientea egiten ez duena.

Ze arazoei egin beharko die aurre, zehazki, munduak datozen hamarkadetan klima-aldaketa dela eta?

Aldaketa horren indarraren arabekoak izango dira. Ez dakigu ziurtasunez. Iragarpen batzuek –denek dituzte ziurgabetasun handiak epe luzera, iragarpenak dira eta ez datuak– neurrigabeko kalteak aipatzen dituzte; beste batzuek, zehaztuagoak, diote toki batzuek onurak izango dituztela eta beste batzuek kaltetuak izango direla, eta gutxi batzuek aldaketak asimilatu ahal izango dituztela adaptazio politika eta kostu handirik gabeko behin behineko arintze baten bidez. Katastrofismoa iragarpen neurritsuak baino ugariagoa da, eta hainbat buru nahasi dituen *klima-aldaketaren erlijio* berri bat sortu du. Baina, dena dela, eduki nahi dugun etor-

kizuneko garapenari buruzko hausnarketa sakona egin behar dugu, gaur egungoa, dagoeneko, ez delako iraunkorra.

Irtenbidea ez datza bakarrik Kioton eta Kopenghen; neurri txikiagoan norbanakoak ere egin dezake zerbait. Zer egin dezakegu maila lokalean berotze globala gelditu edo moteltzeko?

Arazoa ez da hainbeste norbanakoarena baizik eta herrialde aberatsetako herritarrena eta euren agintariena. Guk geuk sortu dugu arazoa –auzia, nire ustez, ez da hainbeste klima-aldaketa zentzu batean edo bestean; baizik eta gizateriaren %20k planetako natur baliabideen %80 kontsumitzen duela, eta gainera, baliabide horiek xahutu eta era ez efizientean erabiltzen dituela. Hori dela eta, geuk *ordaindu* behar dugu gehien arazoa konpontzeko. Kiotok horixe aurreikusten zuen, ikusiko dugu zer ateratzen den Kopenghetik, baina txinatarrek ez dute onartzen –nire ustez arrazoiarekin– amerikar eta europarrekin parekatzea. Beraiek pobreziatik ateratzen ari diren txiroak dira; baina, orain arte, ez dute arazoa sortzen lagundu. Berdin gertatuko da Indiarekin. Herritar aberatsak lokalki eragin behar du, bere kontsumo politikari buruzko hausnarketa sakon batekin: ur eta energia gehiago aurreztu, eguneroko bizitzarako sistema efizienteak bilatu, arlo guztietan birziklatzea eta berrerabiltzea sustatu...

Nola imajinatzen duzu planeta 30 urte barru?

Orain bezala. Planetari ez zaio ezer gertatuko, akaso gizakiei gertatuko zaigu. Batez ere aberatsei. Geuk dugu galtzeko gehien –edo irabazteko, pentsatuko dute gutxi batzuek–, orain arte bezala negozioak egiten jarraitu nahiko dute-eta, egungo energia ereduak jasanezina dela konturatu gabe. Ingurumenaren mehatxuek ez dute planetarekin zerikusirik, planetak gorriak ikusi baititu bere historia osoan, baizik eta baliabide-harrapari gutxi batzuek aukeratu dugun bizimodu zentzugabearekin. Horregatik, erantzukizun nagusia herrialde aberatsetatik dute; alegia, ur falta dugula aldarrikatu eta komunetik behera ur edangarria botatzen dutenak, etxe ondoko supermerkatuak joateko autoa erabiltzen dutenak, besteek sekula eduki ezin izango dituzten natur baliabideak xahutu eta alferrik galtzen dituztenak.

Begoña Minaur
Kazetaria

Errore sintaktikoak automatikoki detektatzen eta zuzentzen

Ordenagailuaren aurrean euskaraz eta euskararekin lan egiten dugunok, Xuxen euskarako zuzentzaile ortografikoa maiz erabili izan dugu. Testu-editoreren bat erabiltzen ari garenean, Xuxenek “xuxen” idatzi ez ditugun hitzetako erroreak salatzen dizkigu, baita ordain zuzenak eman ere. Baina hori da, hain zuzen ere, zuzentzaile ortografikoen muga: hitza.

Muga hori gaintzeko asmoz, erroreen detekzio eta zuzenketa automatikoaren alorrean hitzetatik haratago joan nahi izan dugu IXA taldean¹, eta sintagmetan zein esaldietan gertatzen diren hainbat errore landu ditugu. Sintaxi-erroreen detekzio automatikorako erregelak garatuta, horiek bi eremutan erabiltzeko asmoa dugu: i) XUXENg euskararako gramatika-zuzentzailean, eta ii) ordenagailuek lagundutako hizkuntzen irakaskuntzan.

Sintagma-mailako errore batzuk automatikoki lantzea erraza da; adibidez, “*guzti hori” egitura erroredunean akatsa salatzeke, hitzen ordena kontuan hartzea besterik ez da egin behar. Beste batzuetan, ordea, testu-zati batean errorea dagoela esatea ez da lan erraza izaten, eta gainera, informazio asko eta askotarikoa behar izaten da egitura zuzenak egitura erroredunetatik bereizteko. Bereizketa are zailagoa da erroreak konputazionalki lantzen ditugunean, ordenagailuei pertsonak dugun munduari buruzko ezagutza falta baitzaie. Esaterako, adibide hau erroreduna dela esango genuke gizakiok, dudarik gabe:

*[Lagunak artean] erosi diote.

Ordenagailuak, ordea, zaila du aurreko adibidea ondorengo esaldi zuzenetatik bereiztea:

[Lagunak artean] daude txantxangorriaren habia aztertzen.

[Lagunak artean] erosi gabe zioten oparia.

Aipatu berri ditugun moduko postposizio-lokuzioetan gertatzen diren erroreak automatikoki azalarazi ditugu, besteak beste, nire tesi-lanean. Alde batetik, esaldiko testuinguru lokalarri (ondo z bospasei hitzei) erreparatuz detekta daitezkeen erroreak detektatu eta zuzendu ditugu. Eta bestetik, esaldiaren eremura helduta, subjektuaren, objektuaren eta zehar-objektuaren eta aditzaren arteko komunztadura-erak landu ditugu. Komunztadura-erroreak lantzeko esaldiaren analisi-zuhaitza aztertzeak erroreen detekzio-lana izugarri arintzen du, eta horretarako, Saroi tresna sortu dugu. Has gaitezen bada, urratsez urrats erroreak eta horiek detektatzeko erabilita-ko teknikak azaltzen.

Esaldiko ordena linealean ondoz ondoko hitzetan gertatzen diren erroreak aztertzen hasiko gara. Egun, ohikoa da “2009ko irailaren 28” moduko data okerrak idatzita ikustea. Datako elementuak banan-banan hartuta, hitzak zuzenak dira, Xuxen-ek ez lizkiguke azpimarratuko, baina ez al du marra txorik gabe eta “irailaren 28a” behar? Era honetako egitura erroredunak, hilabetearen eta egunaren arteko komunztadura aztertzen dutenak adibidez, markatu eta zuzendu ditugu. Horretarako, erroreetan agertzen diren egitura okerrak gra-

matika batean deskribatu ditugu, eta gero, *Xerox Finite State Tool* (XFST) izeneko tresna erabiliz, datekin osatutako zerrenda batean probatu ditugu.

Testuinguru mugatukoak dira ere, postposizio-lokuzioak. Egiturok lantzea, datak lantzea baino zailagoa egin zaigu, semantikaren egitekoa oso garrantzitsua baita postposizio-lokuzioetan. “Arte”, “aurre”, “bitarte”, “buruz” eta “zehar” hitzak osagai beregaintzat dituzten postposizio-lokuzioak aukeratu ditugu, maiz gaizki erabiltzen direlako. Tratamendu konputazionalari dagokionez, alde handia dago aukeratutako postposizioen artean. Adibidez, “zehar” lantzeko ez dugu inolako arazorik izan (ohiko akatsa da genitiboan edo deklinatu gabe erabiltzea, “*basoaren zehar” adibidean kasu), eta gainera, oso emaitza onak lortu ditugu. “Arte” eta “buruz”, ordea, buruhauste ugariren iturri izan ditugu. Egiturok oso anbiguoak dira, eta egitura zuzenak erroreduntzat jo izana, maiz gertatu zaigu. “Arte” postposizioaren konplexutasuna ebazteko, batzuetan ezaugarri semantikoak ere erabili behar izan ditugu, denborari edo lekuari buruz ari garen ezagutzeke. Adibidez, “gero arte” esan dezakegu, baina ez, “*etxea arte” (“*etxeraino” behar du). Erroreen deskribapen osoa erregelatan kodetu dugu, eta sortutako gramatika *Constraint Grammar* tresna erabiliz testuei aplikatu diegu.

Komunztadura-erroreak, aurrekoak ez bezala, testuinguru zabalekoak dira eta mota honetako erroreak detektatzeko esaldiko ordena lineala erabiltzea ez da egokia. Har dezagun esaldi bat, hainbat ordenatan idatzita:

1. *Zentral nuklearrak zakar erradiaktiboa eraten dute.
2. *Zakar erradiaktiboa eraten dute zentral nuklearrak.
3. *Zentral nuklearrak eraten dute zakar erradiaktiboa.

Hiru adibide horietan, errorea bera da: subjektuak (“zentral nuklearrak”) eta aditz laguntzaileak (“dute”) ez dute komunztadura ongi egiten kasuan edota numeroan. Orain arte aipatutako teknikak erabiliz gero, hiru erregela beharko genituzke ordena ezberdineko hiru esaldiotan errore bera detektatzeko. Esaldiaren egiturazko ordena, edo analisi-zuhaitza erabiliz gero, ordea, erregela bakarra behar dugu (hiru esaldiek analisi-zuhaitz bera dute). Beraz, egokiena, esaldiari dagokion analisi-zuhaitza eraiki, eta zuhaitz horretan erregela baten bidez egitura erroreduna topatzea da. Horretarako sortu genuen, *Saroi* tresna (Sintaxi ARboletan Oinarritzko bilaketak). Hasiera baren *Saroi*ren helburua erroreen detekzioa bazen ere, laster konturatu ginen tresna orokorragoa izan zitekeela. *Saroi*ren helburu nagusia esaldi erreal bati dagozkion mendekotasun-zuhaitzetan informazioa bilatzea da. Euskaraz, dagoeneko sortua dugu eskuz etiketatutako mendekotasun-zuhaitzen banku edo *treebank* bat. *Saroi* baliatuz edozein iker-tzailek aukera izango du euskaraz erabiltzen diren egiturei buruzko kontsultak zuhaitz-bankuan egiteko.

Maite Oronoz

IXA taldeko kidea eta EHUKO irakaslea

¹ <http://ixa.si.chu.es>

Interneteko segurtasuna eta datuak zifratzea

Interneteko segurtasunari buruz hitz egiten dugunean, honelakoak datozkigu burura: birusak, troiarrak, spama, crackerrak... Jendea antivirus eta suebaki (firewall) bat jarrita babestuta sentitzen da; halere, informatika arloko eraso eta segurtasun-neurriei dagokienez, gauzak ez dira hor bukatzen. Egile ezezagun baten aipuak honela dio: “Pertsona batek egin duen edozer, beste batek desegin dezake”. Beraz, tentuz jokatu behar dugu; are gehiago kontuan hartzen badugu birus berrien aurkako borrokan beti berandu gabiltzala. Lehenengo, birusa agertzen da; antibirusa gero dator. Antibirusik onena zentzuz jokatzeko da; ez fidatzea, eta ez exekutatzeko bidaltzen diguten edozein gauza... Baina antivirus eta suebakiez gain, aukera gehiago ere badago.



Jendea konturatzen ari da –beranduegi, batzuetan– bere datu pertsonalak uste baino garrantzitsuagoak direla. “Nori axola zaizkio nire datuak, zer egiten dudan edo zer ez dudan egiten?”. Enpresa batzuek jendearen datuak biltzen dituzte, erabiltzaileari zuzendutako publizitatea bidaltzeko edota modu masiboan bidaltzeko. Teknologia berrien arloko adituek eman ohi diguten aholkua da, eta aintzat hartu beharrekoa: kontuz ibili behar dugu non eta nori ematen dizkiogun gure datuak, eta ahal den neurrian, datu horiek eskuratzeko mugak ezarri behar dira. Neurri horiek hartuta, spam (nahi ez dugun publizitatea) gutxiago jasoko dugu, edo gutaz dakitena erabiliz iruzur egiteko aukerak gutxitu egingo dira.

Halaber, Internet erabiltzen dugunean cookie-ak onartzeko baimena ematen diogu gure nabigatzaileari; bestela, banan-banan onartu edo atzera bota beharko genituzke-eta. Cookieak informazio-zati txikiak dira eta, adibidez, webgune bat bistartzeko ditugun lehentasunak (hala nola, hizkuntza edo itxura) gorde ditzakete, edo gure erabiltzaile-izena eta pasahitza (webgune hori bisitatzen ari garela edo hurrengoetan berriro tekleatu behar ez izateko). Erabilera horietarako asmatu ziren, behintzat: erosotasunerako.

Baina bestelako datuak ere jaso ditzakete: zein webgune bisitatu ditugun, non egin dugun klik... Eta badaude webgune batzuk datu horiek guztiak jasotzen dituztenak gure profila egiteko. Bi aukera daukagu: horri garrantzirik ez eman, edo benetan interesatzen zaizkigun cookieak onartu, eta ez besterik.

Lan hori errazte aldera, web-nabigatzaileetan aukera edo osagarri batzuk egoten dira. Horrela, Mozilla Firefox nabigatzailean, adibidez, *CookieSafe*¹ izeneko osagarria daukagu.

¹ <https://addons.mozilla.org/es-ES/firefox/addon/2497>

Horren bidez, webgune guztietako cookieak blokeatuko ditugu, nabigatu ahala onartu nahi ditugunak izan ezik. Are gehiago, aukera ematen du webgune bateko cookieak behin-behinean gordetzeko. Hori oso ondo dator webgune batzuetan nahitaezkoak direlako ondo funtzionatzeko; baina, agian, ez dugu bertako lehentasunik gorde nahi, edo ez dugu erabiltzailearik sortu nahi. Eta berdin edozein webgunetako saioetan: ateratzen garenean, hango cookie guztiak ezabatuko dira, eta hurrengoan sartzen garenean berriro sortuko dira. Hasieran, astun samarra izan daiteke; baina, denbora gutxian, gure ohiko webguneei dagokienez, guk nahi ditugun cookieak onartuta edukiko ditugu, eta beste webgune batzuek ez dituzte hain erraz eskuratu gure datuak.

Web-segurtasunaz hitz egiten dugunean, berehala datozkigu gogora Internet bidezko erosketak edo gure bankuarekiko gestioak. Hainbeste iruzur, gezur, spam eta birus egonda, normala da Interneten bidez edozein gauza egiteko mesfidantza izatea, batez ere ederki kostata irabazitako dirua dagoenean jokoan. Azken aldi honetan asko zabaldu den iruzur batekin kontu handiz ibili behar dugu: komisio baten truke eskatzen digute diru beltz kopuru handi bat gure kontu korrontean gordetzeko. Halakoetan, seinale bat eskatzen da jasotzailearen nortasuna egiaztatzeko aitzakiarekin. Behin seinalea emanda, iruzurgilea desagertu egiten da. “Nigeriako iruzurra” esaten zaio, lehenengo aldirik herrialde horretatik etorri zelako. Ohikoa da, halaber, banku baten izenean, halako zerbitzuren bat hobetzeko dela esanez, mezu elektronikoak jasotzea, eta bertan gure pasahitzak eskatzea. Banketxe guztiek behin eta berriro ohartarazten gaituzte: inoiz ez dizkigute datu horiek posta elektronikoz eskatuko. Beti, kasuen %100ean, zure kontutik dirua lapurtzeko ahalegina da.

Halere, mesfidantza hori neurri batean funtsik gabekoa da. Diru-transakzioak egiterakoan, komunikazioa oso-oso segurua da. Transakzioetako puntu ahulak jatorria eta xedea dira, baina ez komunikazioa bera. Hau da, puntu ahulak banketxea eta gure ordenagailua dira. Pentsatu behar dugu bankuek segurtasun-neurri gogorak dituztela, eta maiztasun handiz berraztertu eta monitorizatuko dituztela, euren sistemetan inor sartu den ala ez konprobatzeko. Beste aldean, geure ordenagailua dago, eta bertan, gu ohartu gabe, datuak jasotzen dituen programaren bat instalatuta egon liteke, eta horietako batzuk, benetan maltzurak direnak, berariaz bankuetako datuak eta pasahitzak lapurtzeko erabil litezke. Beraz, gure ordenagailua segurua dela pentsatzen badugu, gure diru-transakzioak segurua direla pentsa dezakegu.

Jakina, erosketak egiten ditugun Interneteko dendarekin ere konfiantza eduki beharko dugu –jatetxeko zerbitzariarekin edo dendari batekin izaten dugun bezala– ordainketa bat egiteko gure kreditu-txartela ematen diogunean. Webgunea (edo jatetxeko zerbitzaria) fidagarria ez bada, eta gure txartelaren datuekin gelditzen bada, baimenik gabe gure izenean ordainketak egiteko, segur aski gure banketxearen aseguruak babeska emango digute, eta bidegabeko kobrantzak atzera bota ahalko ditugu. Dena den, buruhauste franko izan genezake...

Aipatu dugu komunikazio-kanala “oso-oso segurua” dela, eta zuk jakin nahiko duzu zergatik den hori horrela. Bada, Interneten bidez era horretako transakzioak egiten direnean, zifratze sendoa erabiltzen delako, gure datuak beste inork ez ikusteko moduan joan daitezten, eta hartzaileak bakarrik ikus ditzan. Seguru, txikitik, lagunekin jolasean, zuek asmatutako eta beste inork ez ulertzeko moduko hizkuntza sekretuan mintzatzan zinel! Jakin barik, jolasean, zifratzeko sistema bat (seguruenik, erraza) erabiltzen ari zinen. Gakoa jakin ezean, ezin zituen inork trukaturako mezuak ulertu. Zifratze-metodo erraza eta oso ezaguna César² izenekoa da (guk dakigula, Julio Zesarrek erabili zuen lehen aldiz, eta hortik dator kio izena). Metodo horren arabera, “a” letra “d” bihurtzen da, “b” letra “e” bihurtzen da, ... “x” letra “a” bihurtzen da; hau da, letrak 3 posizio aurrerago mugitzen dira. Sistema hori erraz deszifratzen da azterketa estatistikoa erabilita, baina esan beharrik ez dago gaur egun sistema askoz ere konplexuagoak dauzkagula, eta beraz, deszifratzeko zailagoak. Webgune seguruetan HTTPS³ izeneko protokoloa erabiltzen da; webgune batean sartzean gure nabigatzailean agertzen den ohiko HTTParekin ez bezala, beste horrekin datu guztiak SSL sistemaren bidez zifratuta bidaliko dira. Munduko ordenagailurik azkarrenak SSL enkriptaketa deszifratzeko milioika urte beharko lukeela pentsatzen da; halere, azken urteotan hobetu egin da sistema, eta hobetu egin beharko da segurua izan dadin, zeren ordenagailuak nolako abiaduraz hobetzen diren ikusita, urte gutxi barru zaharkituta geratuko bailitzateke.



Horregatik, webgune batek helbide-barran “http” erakutsi beharrean “https” erakusten badu, edota giltzarrapo txiki bat agertzen bada, webgune segurua dela jakingo dugu, eta gure ordenagailua segurua bada eta webgunea konfiantzazkoa, lasai egon gaitzke ez dela inolako arazorik egongo. Gainera, nabigatzaileek gero eta datu gehiago erakusten dizkigute; esate baterako, zein den webgune hori segurua dela ziurtatzen duen agintaritzak. Ziurtagiria okerra bada, gure nabigatzaileak ohar bat egingo digu esanez webgunea agian ez dela konfiantzazkoa, eta beraz, kontuz ibiltzeko; horrez gain, webgune horretan sartu nahi dugula baieztatzeko eskatuko digu. Zer esanik ez, oso garrantzitsua da gure nabigatzailea segurua izatea eta eguneratuta edukitzea. Azken horri buruz esan behar da munduko internauten %23k, gutxi gorabehera, oraindik Microsoft Internet Explorer nabigatzailearen 6. bertsioa erabiltzen dutela, eta hori segurtasun-arrisku handia da haientzat. Askoz ere seguruagoak diren eta funtzionalitate gehiago dituzten Firefox, Opera, Mozilla, Safari edo Google Chrome nabigatzaileak erabiltzea gomendatzen da; edo, behintzat, Internet Explorer-en azken bertsiora eguneratzea, artikulu hau idazteko orduan kalean dagoen 8. bertsiora, hain zuzen ere.

Bukatzeko, beste aipamen bat ekarri nahi nuke hona: “Munduko ordenagailurik seguruena itzalita dagoena da, deskonektatuta, hormigoizko bloke batean sartuta eta Atlantikoan hondoratuta. Hori bai, modu horretan lan egitea ez da batere erraza”.

² http://es.wikipedia.org/wiki/Cifrado_C%C3%A9sar

³ <http://es.wikipedia.org/wiki/HTTPS>

Javier Ortega (Malkavian)
Bizkaiko Gnu LinUxariak (GLUB) taldeko diruzaina

Azalpen- eta iritzi-testuetako izenburuak

Egoera komunikatiboaren garrantzia

Testu bati zein izenburu jarri erabakitzeke garrantzitsua da egoera komunikatiboaren garrantzia kontuan hartzea. Muturreko adibide oker bat jartzearen, ezaguna egingo zaizuen egoera bat azalduko dugu: eskolako “idazlanak”. Sasoi batean, eskola-garaian ginela, ohikoa zen irakasleak, oporren bueltan esaterako, halako egoera bat aurkeztea: “Gaur idazlana egingo dugu eta gaia izango da *oporrak*”. Irakasleak egin beharrekoa adierazten zuen (idatzi) bai eta gaia eman ere (oporrak); baina ez zuenez beste inolako azalpenik ematen, inork ere ez zekien argi eta garbi zein testu-mota eratu behar zuen, hau da, oporretako egunkaria egin behar ote zuen, kronika bat ote zen, balorazio bat... eta, jakina, ia gehienek egiten zuten (genuen) beren (geure) oporren kontakizuna, lehen pertsonan, eta idazki guztiek (edo ia guztiek) zuten izenburu bera (edo aldaeraren bat): (Nire) (Udako) Oporrak.

Baina planteamendu hori ez da zuzena, noski. Testu-egileak helburu bat izan behar du, nahitaez, idazten hasi aurretik, eta norbaitek irakur dezan idazten du, hau da, hartzaila irudikatzen du; beraz, nekez eratu du ganorazko testu bat ez bada ki zertarako eta norentzat den. Horrenbestez, gure helburua baldin bada gai bati buruzko iritzia ematea, badaukagu irudikapen bat zelako testuetan eman daitekeen gure iritzia (iritzi artikulua, blog bat, foro bat...) eta nork irakurriko lukeen, eta badakigu, bestalde, zein testu ez dugun erabiliko iritzia plazaratzeko (oharra, eskuliburua, egiaztagiria...). Zerbait azaldu behar badugu iritzia eman gabe, gauza bera gertatuko zaigu, izan ere azalpenak emateko bestelako testu motak erabiliko baititugu, adibidez, txostena, esku-orria...

Hala bada, behin erabaki dugunean zelako testu-mota egingo dugun eta zeini zuzenduta (kontzienteki edo ez kontzienteki), testu-mota horren hezurdura edo egitura orokorra nolako izango den pentsatu beharko dugu. Multzo bereko testuek hezurdura antzekoa izan ohi dute, salbuespenak salbuespen, eta atal horiek nahiko erraz identifikatu ahal izaten dira. Izenburua izan ohi da guk hona ekarri nahi ditugun

testu-motetako ataletako bat. Ondo pentsatu eta aztertu beharreko atala, nahiz eta sarritan ez diogun behar beste garrantzia ematen.

Izenburua

Orintxe esan dugu: azalpen- eta iritzi-testuek izenburua izan ohi dute. Beste hitz batzuk erabilia: ez dugu nahi txapelik gabeko testurik. Hemen ez dugu izenburuaren garrantziaz luze berba egingo, baina gogora ekarri nahiko genuke askotan izenburuaren arabera erabakiko duela irakurleak testu bat irakurri ala ez. Titulu batek, erakargarria izateko, zerbait komunikatu behar du, irakurlearengana heldu behar du.

Demagun, adibidez, egunkaria erosi eta batere izenbururik gabe argitaratu dutela. Edo, berriek badutela izenburua, baina iritziak plazaratzen dituzten artikuluek, ez. Edo, demagun, atxikimendua lortzeko idazki bat kaleratu duela halako edo bestelako taldeak, eta ez duela izenbururik jarri testuaren goiburuan. Testu horiek ia balio osoa galdua dute, ez baitute beteko sortu zireneko helburua, alegia, ahalik eta irakurle gehienarengana iristea. Eta izenburua da ahalik eta jende gehienarengana iristeko atea.

Artikulu honetan, eta ideia hau azpimarratu egin nahi dugu, iritzi- eta azalpen-testuetako izenburuez hitz egingo dugu, ez bestelako testu-motetako izenburuez. Badago alderik testu-mota bien izenburuen artean. Ez dira jite berekoak izaten, eta bakoitzak ezaugarri jakin batzuk izan ohi ditu. Egia da, edonola ere, zaila dela erabateko kategorizazioa egitea gai honetaz ari garenean, baina bai identifika daitezke zerbait ezaugarri. Horretan sakonduko dugu hurrengo lerroetan.

Handik eta hemendik bildutako izenburuak ipini ditugu hurrengo taulan. Ezkerreko zutabearen iritzi-testuetako izenburuak daude, eta, eskuinekoan, azalpen-testuetakoak. Ikus daitekeenez, desberdinak dira, bai egitura aldetik, bai komunikazio helburuari dagokionez ere. Irakur itzazu arretaz eta hausnartu: zein dira batzuen eta besteen ezaugarriak?

IRITZI TESTUA

Un certain regard
Bueltak amari
Edozein bitarteko?
Halako itxaropena, nolako etsipena
Euskal Herrian, erdaraz?
En cristiano
Zer gertatzen ari zaigu?
Sasi guztien azpitik
Herriaren hitza ote?
Zorion saminduak
Bakoitzari berea
Errausketak baditu alternatibak

AZALPEN TESTUA

Klima aldaketa. Urtaroak direla eta zer ari da gertatzen?
Zer diren trasgenikoak, zertarako erabiltzen diren
Eguzki-ekaitzen iragarpena
“Eurofino”, haurrentzako lehen kutxazain automatikoa
Nanoteknologia: miniaturazko teknologiaren inpaktuak
Zer da atomo-trukea?
Postmodernismoa eta eredu ezberdinen elkarbizitza
Energia geotermikoa. Erabilera eta ezaugarri nagusiak
Nola idatzi azalpen testu bikain bat



IRITZI TESTUETAKO IZENBURUAK

Goiko taulan ikusten denez, iritzi-testuetako izenburuak laburra izan behar du –gehienez, lau zapabost berba– eta ongi aukeratua behar du izan, alegia, ez ausaz edo ardurarik gabe. Zer da, baina, izenburua ongi aukeratzea? Ez da gure asmoa halako edo beste-lako araurik ematea, baina bai ondorio batzuk ekartzea. Aurreko zerrendak erakusten duen moduan, ez dago molde jakin bat izenburua sortzeko. Hala ere, guztietan edo ia guztietan ikusten da testu-egileek adierazgarritasunaren bila jo dutela. Beste era batera esanda, ez dira izenburu *neutroak*, badute irakurlearengan eragiteko asmorik, eta *nahi* dute irakurlea testura hurbiltzea.

Horretarako, hainbat baliabide erabili dituzte egileek:

▀ Galderak:

- Baieztapen bat zalantzan jartzeko (“Euskal Herrian, erdaraz?”; “Herriaren hitza ote?”; “Edozein bitarteko?”). Egileak gai batekiko desadostasuna erakutsiko du, ziu-renik.
- Galdera orokor bat botatzeko (“Zer gertatzen ari zaigu?”). Izenburuari erreparatuta, azalpena eta iritzia azalduko direla ondoriozta daiteke.

▀ Esamolde moldatuak (“Alferra naiz eta harro nago”; “Sasi guztien azpitik”), edota esamolde zatituak (“Bakoitzari berea”; “Bueltak, amari”).

▀ Beste hizkuntzetako esamoldeak (“Un certain regard”; “En cristiano”). Litekeena da idatzita dauden hizkuntzarekin (edo hizkuntza hori hitz egiten den lurraldearekin) zerikusia izatea testuak.

▀ Hitz-jokoak:

- Egitura konparatiboak: “Halako itxaropena, nolako etsipena”
- Antonimia: “Zorion saminduak”
- Metaforak: “Hizkuntza ereduaren dantza”
- Indartzaileak: “Erraustegiak baditu alternatibak” (vs. “Erraustegiak alternatibak ditu” edo “Erraustegien alternatibak”)
- (...)

AZALPEN-TESTUETAKO IZENBURUAK

Bestelakoak izan ohi dira azalpen-testuetako izenburuak, aurreko koadroan ikusi dugunez. Oro har, iritzi-testuetakoak baino luzeagoak izaten dira (ez da, hala ere, ezinbestean horrela izan behar), eta, beharrezko izanez gero, azpi-izenburua ere izan dezakete alboan, puntuz (bat edo bi), komaz edo puntu eta komaz banatuta.

- ▀ Testuan azalduko diren gaiak eta azpi-gaiak (edo atalak) aipatzen ditu: (“Energia geotermikoa. Erabilera eta ezaugarri nagusiak”; “Nanoteknologia: miniaturazko teknologiaren inpaktua”).

Mota horretako testuetan izenburuaren helburu nagusia testuko edukiak laburbiltzea da eta garrantzitsuena esanguratsua izatea da, ez horrenbeste erakargarria izatea. Hori horrela, normalean hitz-jokoak edota joko literarioak ez dira erabiltzen azalpen-testuetako izenburuak osatzerakoan, baina, bai, ordea, testuaren muinean gako izan daitezkeen hitzak. Hau da, identifikazioa izan ohi da gaiaren eta izenburuko hitzen artean.

Bi dira azalpen-testuetako izenburuak osatzerakoan egitura erabilienak:

- ▀ Baieztapena: (“Eguzki-ekaitzaren iragarpena”; “*Eurolino*, haurrentzako lehen kutxazain automatikoa”). Bide honen bidez laburbiltzen da testuak ematen duen informazioa esaldi bakar batean. Gako-hitzak erabiltzen dira, testuaren gaiarekiko identifikazio osoa dutenak.
- ▀ Galdera: (“Klima aldaketa. Urtaroak direla eta zer ari da gertatzen”; “Zer da atomo-trukea?”). Egitura edo baliabide hau erabiliz gero, testuak erantzun asmo duen auzi-arazoa aurkezten da, eta testuaren bidez erantzuten zaio galderari.

Bidenabar, gogoratu behar dugu testu bateko izenburuek koherenteak izan behar dutela elkarren artean. Azalpen-testuetan ohikoa da izenburu nagusiaz gainera azpiizenburuak ere egotea. Garrantzitsua da izen horiek koherenteak izatea eta irakurlea eroso garraiatzea. Horrenbestez, erabakitzen badugu azpigaiak galdera bidez sartuko ditugula, testu osoan zehar mantenduko dugu joera hori; eta erabakitzen badugu horretarako nominalizazioak erabiliko ditugula, berdin jokatuko dugu.

Oro har, eta ez gara nekatuko kontu hau errepikatzeaz, garrantzitsua da izenburua zuzenean lotua egotea testuan esaten den horrekin. Hori dela eta, bada gomendio bat ez genukeena ahaztu nahi, alegia, testu osoa bukatutakoan eta testua berriro irakurri eta egin beharreko zuzenketak egin ostean, komeni da izenburua aukeratzea. Testuaren espiritua jaso behar du izenburuak, dela iritzi-testua dela azalpen-testua ere.

**Eneritz Garro
Asier Irizar**

HUHEZIKO (Mondragon Unibertsitatea) irakasleak

ZERTARAKO BURU-MAPAK?

Buru-mapa egokia da ideekin lan egin behar duen edozein personarentzat edo talderentzat.

Besteak beste, esparru hauetan dira oso erabiliak buru-mapak mundu zabalean:

- ▶ Norberarentzat: autoanalisisa, erabakiak hartzeko, arazoak konpontzeko, sorkuntza, testuak idazteko oinarri gisa, agenda gisa, ikasketetan (oposizioak, hizkuntzak...).
- ▶ Familian: familian ikasteko, ipuinak kontatzeko...
- ▶ Hezkuntzan: pentsamendua garatzeko, irakasteko...
- ▶ Osasun Arloan: dislexia arazoak konpontzeko...
- ▶ Lanean (enpresan, elkarteetan, administrazioan...): bilerak antolatzeko eta gidatzeko, jendaurreko mintzaldiak prestatzeko edota emateko, lan-taldeen zuzendaritzarako.
- ▶ Komunitatean: etorkizuna irudikatzeke, proiektuak bideratzeko...

BURU-MAPEN ONURAK

Laburtuz, buru-mapagintzak eta pentsamendu irradianteak honako onura hauek ekarriko dizkio norbanakoari zein antolokunde bati:

- ▶ Edozein gai, arazo, erabaki behar den egoera edo proiektu aztertzeke erraztasuna.
- ▶ Toki berean orokortasuna eta xehetasunak izatea, eta horrela GESTALT pentsamendua erraztea.
- ▶ Ideiak eta datuak, informazioa antolatzeko arintasuna eta argitasuna.
- ▶ Kontzeptuen arteko erlazioak ulertzeko eta adierazteke erraztasuna.
- ▶ Gako-hitzak edo irudiak soilik erabiliz lan egiteak dakartzan onurak: pentsamendua fokatzea eta fintzea, oroimena erraztea, denbora eta espazioa aurrezte, sortze-prozesua arinagotzea eta aberastea...
- ▶ Ordenagailuz eginez gero, informazio kopuru handiak ondo eta malgu antolatzeko eta gobernatzeko modua. Kontuan izan edozein adar edo azpi-adarretan loturak jar daitezkeela (Interneteko helbide batera, agiri edota gure agiritegiko artxibo oso batera).
- ▶ Jendurrean mintzatzeko itzelezko laguntza. Larri ibiltzetik prozesu osoa gozatzera pasa gaitzeko.
- ▶ Irudiak eta koloreak ondo erabiltzeak dakarren onura-andana: prozesua bera gozagarriagoa izatea, buru-mapan adieraziak hobeto oroitzea, ideia gehiago eta aberatsagoak ateratzea, irudimena aberastea etengabe... (Kasu, gutako edozein gara gai ideiak irudi bidez adierazteke. Atera, beraz, etxeko bazterrean lagatako margoak berriz eta ekin, eskertuko duzu-eta!).

BURU-MAPAK ORDENAGAILU BIDEZ: SOFTWARE-SORTA ZABALA

Ordenagailu bidez buru-mapak eginez gero, informazio kopuru handiak ondo antolatzeko eta arin eta erraz berrantolatzeko modua izango dugu. Gainera, edozein agirirako, artxiborako edo Internet-gunetarako lotura egin daiteke edozein adar edo azpiadarretatik.

Software sorta zabala dago buru-mapak egiteko (horretan zaletua denak helbide hau begiratu dezala gehiago arakatzeko: http://en.wikipedia.org/wiki/List_of_mind_mapping_software). Horien artean, honako hauek azpimarratuko ditut nik neuk erabili izandakoen artean:

1. *XMind* jarriko dugu aukeretan lehenik, software librea delako; buru-mapak haien ezaugarriekin ondo egiteko aukera ematen duelako eta Interneten norik buru-mapak argitaratzeko modua ematen duelako, beste edozeinek bertara jo eta bere ordenagailura *jaisi* ahal izateko moduan. Beraz, mundu-mailako elkarlana errazten duen doako tresna dugu, kode irekiarekin. Arazo nabarmen bat du: batzuetan ikusi ezinik geratuko zaizkigula buru-mapan txertatu ditugun irudiak. Xminden bidez argitaratu izan ditudan buru-mapak, helbide honetan: www.xmind.net
2. *Mind Manager* da ziur aski buru-mapagintzarako software-rik garatuena.
3. *iMindMap* Tony Buzanen konpainia batek garatutakoa da, eta azken urteetan oso bizkor ari da hobetzen, eta aurrekoak eskaintzen ez dituen xehetasun ugari ere txertatu ditu.

Horiek esanda, azpimarratuko dugu, halaber, buru-mapak eskuz egiteak baduela ordenagailuz egiteak eman ez ditzakeen abantaila ugari: prozesua gozagarriagoa izaten da; ideia-jarioa arinagoa da, errazagoa da sormenari bide ematea...



Goiko buru-mapa horretan, buru-mapak egiteko software nagusiak ageri dira.

Iturria: <http://mindmappingsoftwareblog.com/mmsb/wp-content/uploads/2009/08/index2.html>

ElederAurtenetxe
eleder.aurtenetxe@gmail.com

Manuel Iradierrek Afrikan utzitako bihotz puska

M

Manuel Iradier 1875eko maiatzean iritsi zen Elobey Txikia uhartera. Ameslari adoretu baten buruan mamituta ezohiko bidaia izan zen hura: Isabel emazteak eta biek, 20 urterekin, eta Manolita koinatak, 18 urterekin, ekin zioten Afrikarako bideari, xalo-xalo. Atzerriko esplorazio-bidaia gehienak geografía elkarte edo gobernuren baten izenean egin ziren ordu-ra arte; iradiertarrak, ordea, beren kabuz, umezurtz erabateko, abiatu ziren Ekuatore Gineako lurretara.

Manuelek bereak eta bi pasa zituen: zainetaraino sartu zitzaion malaria, hiru hilabetez egon zen heriotzaren estratan indigena batek pozoituta, piztien erasoak ere franko jasan zituen, baina atzaparkadarik latzena iristeko zegoen artean. Bederatzi hilabetez Muni ibaiaren inguruko lurraldeak esploratzen eta hango tribuen inguruko berri jasotzen ibili ondoren, Fernando Poo uhartera –gaur egungo Bioko irla– itzuli ziren Manuel, Isabel emaztea eta Manolita koinata. Bazen laugarren lagun bat beraiekin, Isabela txikia, Elobey uhar-tean, Afrikaren bihotzean, jaiotako alabatxo bihotzekoa.

Fernando Poora bueltan, Gasteiztik abiatutako gizonaren arrastorik ez zen geratzen Iradierren gorputz-arima abailduan. Malariaren eraginez, ia 200 sukarraldi jasan zituen Muniko lur haietan. “Eguzkiak erreta, arraustuta, txikituta, dardara batean” itzuli zen Fernando Poora, esploratzailearen beraren hitzetan. Nola ez, halako penaldien ondotik, Santa Isabel hiriburuan igarotako lehen egunak esne-mamizkoak begitandu zitzaizkion: “Beste eguzki bat hasi zen argitzen nire bizitzaren zerumugan. Hiri zibilizatu batean nengoen, espainiarren artean bizi nintzen, ohe gurian egiten nuen lo, ogia jaten nuen eta ardoa edaten... Hitz batean, basatien lurraldetik atera eta zibilizazioan sartu nintzen”.

Santa Isabelen eginiko lehen hilabete haietan irakasle lane-tan aritu zen Iradier, bertako mutilen eskolan, gaztelania, aritmetika eta irakurketa irakasten. Isabel emaztea, berriz, nesken eskolan jardun zen maistra.

Santa Isabelen, ordea, Elobeyn eta Muni ibaiaren lurraldean ez bezalako oinazeak jasan beharrean zen esploratzaile gas-teiztarra, malariarena baino samin latzagoak. Bereak dira hitzak: “Ezagun da zoritxarra herrialde malapartatu honetan ezkututzen dela eta aldiro-aldiro prestatzen duela segadaren bat. Santa Isabelen 76 sukarraldi pairatu nituen, 37 emaz-teak, 16 koinatak eta 15 gure alaba txikiak. Gure etxea ospitale bihurtu zen. Askotan, egun berean ohean ginen denok. Pozak ihes egin zuen; isiltasuna gailendu zen erabat. Herio-tza atzetik genuen eta beharrezkoa zen erabakiren bat hartzea ez gertatzekoren bat gertatu baino lehen”.




Gobernadoreari beste eskutitz bat idatzi zion, familiaren osasu-n txarra zela medio, irakasle kargua utzi eta penintsulara joateko asmoa zuela iragartzeko. Berandu, ordea. Paludismoaren eragineko sukarraldi makur haietako batek iradiertar-reen artean babesgabeena eraman zuen: Afrikan jaiotako txikia, Isabela alaba, Afrikak berak eraman zuen. Hamabost hilabete baino ez zituen. 1876ko azaroaren 28an, “begi zora-gari haiek itxi egin ziren, gehiago ez zabaltzeko”.

Oinazeak hartu zuen esploratzailearen barru osoa. Eta zergatik ukatu, halako erruduntasun sentimenduak zornea ateratzeraino gaiztotu zuen zauria. Aurrez eta gerora, hainbatetan erasan zion sentimendu horrek. Damuaren bilurrean loturik, behin baino gehiagotan galdetu zion bere buruari: “Ni ote naiz ausaz Afrika esploratzeko hautatua?”. Alabaren herio-tzaren ondotik, familia Tenerifera bidali zuen klima osasun-gaitz hartatik ihesi, eta bera Fernando Poon geratu zen beste hainbat hilabetez. “Gertatutakoak gertatuta, ez nuen jakin beste inora joaten, nire Isabelaren hilobira baino. Kaoba handi baten gerizan eman genion lur, eta menderaezinezko erakarmenez tiratzen ninduen hobiak. Haren oroitzapenetan joaten zitzaidan eguna”.


Egin zituen gerora ere hainbat irteera eta esplorazio, baina gogoa beste nonbait zuen. Grinaren izpirik ez zitzaion geratzen ia eta egunerokotasun halako batez egin zituen gerozko irteerak; esplorazio deitzera ere ausartuko ez zen joan-eto-riak. Bakardade hartan igaro zituen 1876ko Gabonak, “inoizko tristenak”, alaba hil berriaren oroimena taupada bakoitzeko zigor. Izan ere, Afrikan, bere Afrika maitean, utzi zuen betiko bihotz puska bat.

Ramon Olasagasti
Kazetaria

Hitz gezidunak

		Burdinbide	Txartela	Zilbor	Elementu kimikoa	Gaubeako auzoa
		Etxeak, esaterako	Libertate	Ipar EH-n, itxura	Jaun	
		IRUDIKO KIROLA				
		Bokala				
Aiztoak	Krudel			Sor		
Sindikatu abertzalea	Aurkitzen saiatu			Laborantza tresnak		
		Euskal alderdi ohia				
		Atzizki femeninoa				
Ikus-taldia				Hitzez adierazi		
Doinua				Atx!		
				... denez, dirudienez		Potasioa
				Talde xenofoboa		Bi ken bat
Sodioa		Neguko kirola			Baldintzetan	
Eguna		Aluminioa			Bokala bikoitza	
			Uribe Kosta	Suari dariona		Bokala
			Uranioa	Kontsonantea		
Zabuka					Juntagailua	

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da

- Landa etxe.
- Albistea.
- Ugaztun mota.
- Barazki mota.
- Zenbaki bat.
- Norbait/zerbaiten atzetik ibili.
- Jostailu biribil.
- Anaia edo arrebaren seme-alabak.
- Baranda, galeria.

Soluzioak

⊗	R	A	K	A	R	A	N	K	A	⊗	A
⊗	R	A	D	O	N	A	N	⊗	B	A	T
⊗	Z	I	L	A	G	U	S	A	⊗	E	E
⊗	T	I	K	A	R	A	S	E	A	⊗	K
⊗	T	I	K	E	T	A	A	⊗	K	K	K
⊗	R	A	S	K	A	T	A	⊗	S	U	N
⊗	T	R	E	N	B	I	D	⊗	E	U	U
⊗	E	⊗	A	⊗	A	⊗	S	⊗	A	L	L
			L	A	B	I	L	A	T	U	
			⊗	L	⊗	⊗	B	⊗	D	⊗	

H - I T Z g e z i d u n a k

Goitik behera

1. Baserri. 2. Berría. 3. Erbia.
4. Arbi. 5. Bia. 6. Bila.
7. Bai. 8. Itobak. 9. Balkoia.